

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Agurain, Astigarraga, Bakio, Barrika, Getxo
eta Oiartzungo Hirigintza Hitzarmenak**

**Convenios Urbanísticos de Agurain,
Astigarraga, Bakio, Barrika, Getxo y Oiartzun**

2005-2009





AURKIBIDEA / ÍNDICE

0. LABURTZAPENAK	5
I. SARRERA	6
II. 2005-2009 ALDIAN APLIKAGARRI IZAN DEN ARAUDIA.....	8
III. AZTERTUTAKO UDALAK ETA HITZARMENAK	9
IV. ONDORIO OROKORRAK.....	12
V. AGURAINGO UDALA	15
VI. ASTIGARRAGAKO UDALA	21
VII. BAKIOKO UDALA.....	29
VIII. BARRIKAKO UDALA	37
IX. GETXOKO UDALA.....	40
X. OIARTZUNGO UDALA.....	46
ALEGAZIOAK	59
0. ABREVIATURAS	77
I. INTRODUCCIÓN.....	78
II. NORMATIVA APLICABLE EN EL PERIODO 2005-2009	80
III. AYUNTAMIENTOS Y CONVENIOS REVISADOS	81
IV. CONCLUSIONES GENERALES	84
V. AYUNTAMIENTO DE AGURAIN.....	87
VI. AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA.....	93
VII. AYUNTAMIENTO DE BAKIO	101
VIII. AYUNTAMIENTO DE BARRIKA.....	109
IX. AYUNTAMIENTO DE GETXO	112
X. AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN.....	118
ALEGACIONES	131

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 1a

Vitoria-Gasteiz, a 1 de diciembre de 2011





0. LABURTZAPENAK

HEA: hirigintzako esku-hartzeko alorra

BAO: Bizkaiko Aldizkari Ofiziala

GAO: Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

ALHAO: Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa

XG: xedapen gehigarria

AFA: Arabako Foru Aldundia

BFA: Bizkaiko Foru Aldundia

GFA: Gipuzkoako Foru Aldundia

XI: xedapen iragankorra

TEak: toki erakundeak

EIOZ: Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga

BEZa: Balio Erantsiaren gaineko Zerga

TGB: Tokiko Gobernu Batzarra

SPKL: Sektore Publikoko Kontratuen Legea

m2(e): metro karratu eraikiak edo metro karratu eraikigarriak

FA: foru araua

ASak: arau subsidiarioak

HJP: hirigintza jarduneko programa

BEPB: barne eraberrikuntzako plan berezia

HAPO: Hiri Antolamenduko Plan Orokorra

LUO: lurzorua udal ondarea

LED: Legegintzako Errege Dekretua

BLH: bitokitarako lur urbanizagarria

APKLTB: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen testu bategina

EAEJAN: Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia

JU: jardun unitatea

HJU: hirigintzako jardun unitatea

PME: prezio mugatuko etxebizitzak

BAOE: babes ofizialeko etxebizitzak

PTE: prezio tasatuko etxebizitzak

LOB: lurzorua ordainaraztearen balioa

I. SARRERA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta, Laneko Planean sartu du Agurain, Astigarraga, Bakio, Barrika, Getxo eta Oiartzungo udalek 2005-2009 aldian sinatutako hirigintza hitzarmenen fiskalizazioa gauzatzea.

Hirigintza hitzarmenak partikularrek hirigintza jardueraren garapenean duten parte-hartzearen adierazpena dira. Hirigintza hitzarmenetan, hirigintza arloan administrazio publikoen eta/edo hirigintzako interesen edo eskubideen titular diren eta hirigintzako jarduera jakin batek era batera edo bestera eragiten dien pertsona fisiko edo juridikoen artean egiten diren borondate adostasunaren adierazpenak dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, onartu arte, ez estatuko hirigintza legedian ez Euskal Autonomia Erkidegokoan ez zegoen mota horretako hitzarmenak egiteko berariazko prozedurarik. Baldintza bakarrak honako hauek ziren: interes orokorrerako onuragarri izan behar ziren, nahitaez; ez zuten Antolamendu Juridikoaren aurka egin behar; eta administrazio egokiaren printzipioak bete behar zituzten.

2/2006 Legeko 7. xedapen gehigarrian arautu dira mota horretako hitzarmenak. Xedapen horren arabera:

1. Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta toki entitatek hitzarmenak egin ahal izango dituzte, elkartuta edo banan-banan, pertsona publikoekin edo pribatuekin, pertsona horiek laguntza eman dezaten hirigintza jarduera modurik onenean eta eraginkorrean garatzeko. Pertsonok ez dute zertan izan kasuan kasuko lursailen jabe.
2. Aurreko paragrafoan aipatutako hirigintza hitzarmenak negoziatu, sinatu eta betetzeko orduan, legezketasun, gardentasun eta publizitate printzipioei jarraitu beharko zaie.
3. Hirigintza hitzarmenak era honetakoak izan daitezke, beren xedearen arabera:
 - a) Hirigintza antolamenduari buruzko hitzarmenak: indarrean den plangintzan zer aldaketa eta nolako edukiarekin egin daitezkeen zehaztea izango dute xede.
 - b) Hirigintza egikaritzeko hitzarmenak: hitzarmena egiteko unean indarrean den plangintza kudeatzeko eta egikaritzeko izango diren zehaztapenak eta baldintzak izango dituzte xede.

Lan honetan, 2005-2009 aldirako goian adierazitako udalen ohiko hirigintza jarduerari buruzko informazioa eskuratu dugu, honako hauen gaineko ondorioak ateratzeko:

- Ea aipatutako udalek sinatutako hitzarmenek legeak eta haietan ezarritako prozedurak bete dituzten.
- Ea hitzarmenetan behar bezala arrazoitu den haietan jasotako jarduerak interes orokorrekoak direla.
- Ea ezarritako kontraprestazioak legezkoak diren, eta ea dagokien moduan eta epean bete diren.



- Ea eragiketak behar bezala erregistratu diren, bai kontabilitatean, bai Lurzoruaren Udal Ondarearen eta Hitzarmenen berariazko Erregistroetan.
- Gainera, honako hauek egiaztatu ditugu: udal hirigintzako araudia, eta araudi hori 2/2006 Legeari egokituta izatea; Hirigintzako Hitzarmenen Administrazioako Erregistroa eta Artxiboa izatea eta behar bezala kudeatzea; lurzoruaren udal ondarea; eta Udal Plangintzako Aholku Batzordea.

Hitzarmen ugaritan aurkitu diren hutsak IV. Ondorio orokorrak atalean aurkeztu dira, bai eta hirigintzako araudiaren eta Hitzarmenen, Lurzoruaren Udal Ondarearen eta Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Administrazioako Erregistroaren eta Artxiboaren egoera ere. Jarraian, V. ataletik X.era bitartean, udal bakoitzeko azaldu dira, lehenbizi, aztertutako hitzarmenetan ikusitako huts komunak; eta, ondoren, hitzarmenak deskribatu dira, eta hitzarmen bakoitzean aurkitutako berariazko hutsak azaldu dira.

II. 2005-2009 ALDIAN APLIKAGARRI IZAN DEN ARAUDIA

Hona hemen aplikagarri izan den araudia, nagusiki:

- 1346/1976 Errege Dekretua, apirilaren 9koa, Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bategina onestekoa.
- 3288/1978 Errege Dekretua, abuztuaren 25ekoa, Hirigintza Kudeatzeko Araudia onestekoa.
- Erregeren 16/1981 Lege Dekretua, urriaren 16koa, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak egokitzeari buruzkoa.
- Legegintzako 781/1986 Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Jaurbideari buruzko Indarreko Lege Xedapenen Testu Bategina onartzekoa.
- Legegintzako 1/1992 Errege Dekretua, ekainaren 26koa, Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bategina onestekoa.
- 3/1997 Legea, apirilaren 25ekoa, Hirigintza Egintzek sortutako Plusbalioetan Euskal Autonomia Erkidegoaren parte-hartzea zehaztekoa.
- 6/1998 Legea, apirilaren 13koa, Lurzoruaren Araubideari eta Balioztatzeari buruzkoa.
- 20/1998 Legea, ekainaren 29koa, Lurzoru Ondare Publikoena.
- ECO/805/2003 Agindua, 2003ko martxoaren 27koa, ondasun higiezinak eta zenbait finantza helburutarako eskubide jakin batzuk balioztatzeako arauak buruzkoa.
- Legegintzako 2/2004 Errege Dekretua, martxoaren 5ekoa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bategina onartzekoa.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, Premiazko Neurriei buruzkoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzekoa.
- Legegintzako 2/2008 Errege Dekretua, ekainaren 20koa, Lurzoruari buruzko Legearen Testu Bategina onartzekoa.



III. AZTERTUTAKO UDALAK ETA HITZARMENAK

Gure lanaren xede izan diren udalek 58 hirigintza hitzarmen sinatu dituzte aztertutako aldian, eta horietatik 43 hitzarmen aztertu ditugu.

UDALA	Biztanle kop. 2009-12-31n	Hirigintza Hitzarmenak	
		Sinatuak	Aztertuak
Agurain.....	4.867	5	5
Astigarraga	4.709	16	7
Bakio.....	2.470	5	5
Barrika	1.487	4	4
Getxo.....	80.277	5	5
Oiartzun.....	9.947	23	17
GUZTIRA		58	43

Hona hemen aztertu ditugun hirigintza hitzarmenak:

UDALA/HITZARMENA	Mota	Sinatze data	Egoera	Atala
Agurain				
1. Ekialdea-1 eremuko hirigintza aprobetxamendua saltzeko hitzarmena.....	Egikaritzea	2009.04.22	Egikaritzen	V.1.2
2. Larrua ontzeko lantegiari dagokion eremu etenean dagoen BEPBko lursail batera, beste bi lursailen hirigintza eragina eramateko hitzarmena (1).....	Egikaritzea	2005.09.14	Egikarituta	V.1.3
3. BLH-0 S.0 sektorea (Zadorra) kudeatzeko eta egikaritzeko hitzarmena	Egikaritzea	N/A	Egikaritzen	V.1.4
4. Eras de San Juan E (D6) HJU kudeatzeko eta egikaritzeko hitzarmena.....	Egikaritzea	2007.06.26	Egikaritzen	V.1.5
5. Kudeaketaren ardura emateko hitzarmena LUR LAUTADA XXI, SArekin, LITUTXIPI 6 BEPB gara dadin.	Egikaritzea	2006.07.28	Egikaritzen	V.1.6
Astigarraga				
6. ERG-6 eta ERG-13 hirigintzako jardun unitateak garatzeko hitzarmena. (1).....	Egikaritzea	2006.07.19	Egikarituta	VI.1.2
7. GALTZAUR-MURGIERROTA 6 hirigintzako jardun unitatea hitzarmen batzarraren sistemaz egikaritzeko hitzarmena	Egikaritzea	2006.12.28	Egikaritzen	VI.1.3
8. GARTZIATEGI BERRI etxearen jabetza kendu zitzaienei ostatu emateko hitzarmena.....	Egikaritzea	2007.09.20	Egikaritzen	VI.1.4
9. Udalaren jabetzako lursail bat trukatzeko hitzarmena.	Egikaritzea	2007.04.11	Egikarituta	VI.1.5
10. Nekanenea – Donostia Ibilbidea, 21 Hirigintza Hitzarmena.	Egikaritzea	2007.05.22	Egikarituta	VI.1.6
11. ERGOBIA IBILBIDEA 9 hirigintzako esku-hartzeko alorra egikaritzeko hitzarmena.	Egikaritzea	2010.02.01	Egikaritzen	VI.1.7
12. ERGOBIA IBILBIDEA 9 hirigintzako esku-hartzeko alorra hitzarmen batzarraren sistemaz garatzeko hirigintza hitzarmena	Egikaritzea	2009.02.17	Egikaritzen	VI.1.8



UDALA/HITZARMENA	Mota	Sinatze data	Egoera	Atala
Bakio				
13. SR.2 BAKEA bizitokitarako eremua garatzeko hitzarmena (1)	Antolamendua	2005.06.28	Egikarituta	VII.1.2
14. BDA-02 jardun unitatea garatzeko hitzarmena (1)	Antolamendua	2005.06.28	Egikarituta	VII.1.3
15. BDB jardun unitatea garatzeko hitzarmena. (1).....	Antolamendua	2005.06.28	Egikarituta	VII.1.4
16. SR.3 ERRETERIA bizitokitarako eremu urbanizagarria garatzeko hitzarmena (1).....	Egikaritzea	2006.08.02	Egikaritzen	VII.1.5
17. SR.6 ELEXALDE bizitokitarako eremu urbanizagarria garatzeko hitzarmena (1).....	Egikaritzea	2006.09.18	Egikaritzen	VII.1.6
Barrika				
18. Lurzorua doan lagatzeko hitzarmena, eremu horretan G – ARTEPETA eremura sartzeko bidea egin dadin (1).....	Antolamendua	2006.04.28	Egikaritzen	VIII.1.2
19. Hitzarmena Bizkailur kide bakarreko sozietate anonimoarekin, tokiko babeseko 89 etxebizitza eraikitzeke.	Egikaritzea	N/A	Egikaritzen	VIII.1.3
20. Hitzarmena partikularrekin, biribilgune bat egiteko beharrezko lurzorua doan laga dezaten	Egikaritzea	2009.12.16	Egikaritzen	VIII.1.4
21. Hitzarmena enpresa batekin, biribilgune bat egiteko beharrezko lurzorua doan laga dezan.....	Egikaritzea	2009.11.20	Egikaritzen	VIII.1.5
Getxo				
22. ITURRIBARRI II 24.2 JUaren hitzarmen batzarraren bidezko kudeatzea arautzen duen hitzarmena	Egikaritzea	2008.12.03	Egikaritzen	IX.1.2
23. Hitz. batz. bidezko sist. hitzarmena, SARRIKOBASO 31.1 JU.	Egikaritzea	2008.12.02	Egikaritzen	IX.1.3
24. ARRIGUNAGA alorreko 29.1 JU urbanizatzeari buruzko hitzarmena. (1).....	Egikaritzea	2005.07.01	Egikarituta	IX.1.4
25. Hitzarmena, ORMAZA BEHEKOA 42.2 JUko Lankidetzako Administrazio Elkartearekin. (1)	Egikaritzea	2005.01.26	Egikarituta	IX.1.5
26. Getxoko Santa Eugenia kaleko 14. eta 16. zenbakietan udalerriko HAPOko zehaztapenak egikaritzeko hitzarmena. (1).....	Egikaritzea	2007.03.02	Egikarituta	IX.1.6
Oiartzun				
27. 1. hitzarmena, GURUTZEko biribilgunea garatzeko	Egikaritzea	2007.02.12	Egikarituta	X.1.2
28. 2. hitzarmena, GURUTZEko biribilgunea garatzeko	Egikaritzea	2007.02.12	Egikarituta	"
29. 3. hitzarmena, GURUTZEko biribilgunea garatzeko	Egikaritzea	2007.02.12	Egikarituta	"
30. 4. hitzarmena, GURUTZEko biribilgunea garatzeko	Egikaritzea	2007.05.31	Egikarituta	"
31. LANBARREN LAN-3 handitzearen eremuari loturiko hitzarmena	Antolamendua	2007.03.30	Eten. eta ordez.	X.1.3
32. LANBARREN LAN-3 handitzearen eremuari loturiko hitzarmena	Antolamendua	2009.07.03	Egikaritzen	X.1.3
33. ITURRIOTZeko 28.1 alorra kudeatzeko hitzarmena.....	Egikaritzea	2007.01.18	Egikarituta	X.1.4
34. ARRAGUA 1A eta 1B eremuari buruzko hitzarmena, Eusko Jaurlearitzarekin	Antolamendua	2006.10.04	Eten. eta ordez.	X.1.5
35. ARRAGUA 1A eta 1B eremuari buruzko hitzarmena, enpresa batekin. (1).....	Antolamendua	2005.06.10	Ordeztua	"
36. ARRAGUA 1A eta 1B eremuari buruzko hitzarmena, enpresa batekin.	Egikaritzea	2007.02.08	Eten. eta ordez.	"
37. ARRAGUA 1A eta 1B eremuari buruzko hitzarmena, Eusko Jaurl. ..	Antolamen.	2009.02.20	Egikaritzen	"



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

UDALA/HITZARMENA	Mota	Sinatze data	Egoera	Atala
38. ARRAGUA 1A eta 1B eremuari buruzko hitzarmena, enpresa batekin.....	Antolamendua	2009.06.16	Egikaritzen	"
39. ITURRIOTZ auzoko 22.1 alorra kudeatzeko hitzarmena (1)	Egikaritzea	2006.02.10	Ordeztua	X.1.6
40. ITURRIOTZ auzoko 22.1 alorra kudeatzeko hitzarmena	Egikaritzea	2007.01.16	Egikaritzen	"
41. UGALDETXO auzoan egin beharreko jardunak egiteko hitzarmena	Egikaritzea	2007.03.30	Enteda	X.1.7
42. ERROTA LEGOR ZAR 33.2 alorra egikaritzeko hitzarmena	Egikaritzea	2007.03.13	Egikarituta	X.1.8
43. ELIZALDEko 1. alorreko B jardun unitateari buruzko hitzarmena (1)	Egikaritzea	2005.05.11	Egikarituta	X.1.9

(1) 2/2006 Legearen aurretiko oinarrizko legediaren mendeko hitzarmenak.



IV. ONDORIO OROKORRAK

Hirigintza Araudia

2/2006 Legeko 2. xedapen iragankorrek, 1. atalean, agintzen du plan orokor eta arau subsidiario guztiak Lege horretan jasotako zehaztapenetara egokitu behar direla, zortzi urteko epean, gehienez ere.

Lan hau egin den egunean, Agurain eta Astigarragako Udalek Hiri Antolamenduko Plan Orokorra 2/2006 Legea egokituta eta behin betiko onartuta dute. Gainerako udalak beren arau subsidiarioak edo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egokitzen ari dira.

Lurzoruaren Udal Ondarea

2/2006 Legeko 111., 112. eta 113. artikuluetan xedatutakoaren arabera, EAEko udal guztiek nahitaez eratu, mantendu eta kudeatu behar dute Lurzoruaren Udal Ondarea, era independentean eta gainerako ondaretik bereizita. Lurzoruaren Udal Ondarean ondare horri dagozkion ondasunak eta baliabideak identifikatu behar dira. Ondasun eta baliabide horiek Lege horretako 115. artikuluan adierazitako erabileretarako baino ezin dira baliatu; honako erabilera hauetarako, besteak beste: nolabaiteko babes ofizialeko araubideren baten pean dauden etxebizitzak eraikitzeko, andeatutako eremuetan hornidura publikoak eraikitzeko edo birgaitzeko, interes publikoko jardueretarako lurzoria eskuratzeko, ondare historikoa edo udalaren ekipamendu kolektiboa birgaitzeko, eta abarretarako.

- Getxoko Udalak modu independentean kudeatzen du Lurzoruaren Udal Ondarea, baina ondare horri dagozkion ondasunak sartu baino ez ditu egin, ez ditu balioztatu. Agurain, Bakio eta Barrikako Udalek ez dute Lurzoruaren Udal Ondarea eratu. Horren ondorioz, hiru udal hauetan ezin izan dugu egiaztatu aztertutako hirigintza hitzarmenetan eskuratutako ondasunak eta baliabideak 2/2006 Legeko 115. artikuluan adierazitako erabileretara bideratu diren ala ez.
- Oiartzun eta Astigarragako Udalek Lurzoruaren Udal Ondarea eratuta dute, eta behar bezala mantentzen eta kudeatzen dute.

Hitzarmenen Administrazioako Erregistroa eta Artxiboa

2/2006 Legeko 7. xedapen gehigarriko 9. atalean ezarritakoaren arabera, EAEko udal guztiek nahitaez izan behar dute hitzarmenen administrazioako erregistroa eta artxiboa (Hitzarmenen Erregistroa, aurrerantzean). Erregistro horretan hitzarmenaren behin betiko testuaren eta, kasuan kasu, hitzarmenarekin batera doazen dokumentuen ale oso bat gordeko da.

- Agurain, Bakio eta Barrikako Udalek ez dute Hitzarmenen Erregistrorik.
- Astigarraga, Getxo eta Oiartzungo Udalek badute Hitzarmenen Erregistroa, eta hitzarmen bakoitzaren behin betiko testuaren eta hitzarmenarekin batera doazen dokumentuen ale oso bat gordetzen dute bertan. Dena den, Oiartzungo Udalean, lan hau



egin dugun egunean, bertan behera utzi diren 4 hitzarmen (2/2006 Legea indarrean sartu eta gero sinatu zirenak) ez dira jaso Hitzarmenen Erregistroan.

Udal Plangintzako Aholku Batzordea

2/2006 Legeko 109. artikuluan xedatutakoaren arabera, 7.000 biztanle baino gehiagoko udaletan nahitaez izan behar da Udal Plangintzako Aholku Batzordea. Biztanle kopuru hori gainditzen duten bi udaletan -Getxoko Udalean eta Oiartzungoan- badute aipatutako Aholku Batzordea. Astigarraga eta Barrikako Udalek, egin beharrik izan ez arren, Udal Plangintzako Aholku Batzordea sortu zuten, baina batzorde horrek ez du bilerarik egin sortu zenetik, ez udal batean ez bestean.

Aztertutako hitzarmenei buruzko ondorio orokorrak

Aztertutako aldian, 2/2006 Legea indarrean sartu aurretik eta gero sinatutako hitzarmenak daude (Lege hori 2006ko irailean sartu zen indarrean), eta ateratako ondorioak 2005-2009 aldian aplikagarri den Araudiaren II. atalean zehaztutako arauetan jasotako aginduen betetzeari buruzkoak dira.

Udal bakoitzaren ohiko jarduerari buruz ateratako ondorioak gero zehaztuko ditugu. Hori alde batera utzita, zenbait ondorio orokor nabarmendu daitezke. Ondorio horiek neurri, biztanle kopuru, jarduera ekonomiko, hirigintza arloko antolaketa egitura eta bestelako alderdi oso desberdinak dituzten udalen zeharkako azterketaren emaitza dira, eta hitzarmen askotan ikusi ditugu. Hona hemen:

1. Hirigintzako jarduera guztiak interes orokorrera bideratuta izan behar dira. Eta, zehazki, 2/2006 Legeko 4.2.b) artikuluan honako hau eskatzen da: «hirigintzako funtzio publikoaren xedeen interes eta behar publiko zein pribatuen haztapen arrazoitua egin behar da, bai eta Lege honen arabera bete behar dituen printzipioena ere». Hortaz, udalek justifikatu behar dute hitzarmenak onuragarri izango direla erkidegoaren interesetarako. Aztertutako 43 hitzarmenetatik 19tan ez da egin justifikazio hori. Beste 11 hitzarmenetan justifikazio hori ez da beharrezkoa, 2/2006 Legeko 160.2 artikulua hitzarmen batzarraren sistemaren bidezko garapenerako hitzarmena egitea nahitaezkoa dela ezartzen baitu. Gainerako udalek bete dute legezko agindu hori, dela hitzarmeneko jardueretatik bertatik ondoriozta daitekeelako (6 kasutan); dela zioen azalpenetan jaso delako jarduerak betetzen dituzten beharrek interes orokorra estaltzen dutela (2 kasutan); edo behar bezala justifikatu dutelako (5 kasutan).
2. 2/2006 Legeko 7. xedapen gehigarriak 8. atalean xedatutakoaren arabera, hitzarmenen eduki osoa lurralde historikoaren aldizkari ofizialean argitaratu behar da nahitaez, eta hitzarmenak jendaurrean jarri behar dira, 20 eguneko epean gutxienez, alegazioak egin ditzaten. Betebehar hori aipatutako Legea indarrean sartu eta gero onartutako hitzarmenetan bete da, salbu Getxoko Udalean. Udal horretan, 2/2006 Legea oinarri hartuta onartu ziren bi hitzarmen argitaratu zirenean soilik hitzarmena onartzeko erabakia argitaratu zen, eta hitzarmenaren testua ez.



Oiartzungo Udalean hitzarmen guztiak argitaratu dira, baina 6 kasutan ez zen argitaratu hitzarmenen eranskinen bat.

3. Aztertutako 14 hitzarmenetan hirigintza aprobetxamenduaren lagapena aprobetxamenduaren monetarizazioaz ordeztu da, eta hitzarmen horietatik 10etan ez da aukeraketa hori justifikatu. Aukeraketa hori salbuespenezkoa da 20/1998 Legeko 4.2.b artikuluan, lehenbizi, eta 2/2006 Legeko 27.5 artikuluan, gero. Beraz, hirigintza aprobetxamenduari dagokion lursail urbanizagarria jasotzea ezinezkoa dela edo komenigarri ez dela justifikatu beharko litzateke.
4. Aztertutako hitzarmenetatik 22tan, zerbitzu teknikoek egindako adituen balioztatzeak ez dira behar bezala justifikatu edo ez dute oinarri nahikorik. Gainera, legez onargarri den hirigintza aprobetxamenduaren lagapenaren balioztatzea Birpartzelazio Proiektuan egindakoa da, eta hori ez dator beti bat hitzarmena sinatzen den unean egiten denarekin. Beraz, udalari dagokion hirigintza aprobetxamenduaren lagapena aprobetxamenduaren monetarizazioaz ordezkatu den 12 hitzarmenetan, hitzarmenetako klausuletan aipatu beharko litzateke lagapen horren balioztatzea Birpartzelazio Proiektuan egingo denari lotuta legokeela.
5. 13 hitzarmenetan kontratazio publikoaren araudia urratu dela ikusi da: 5 hitzarmenetan, hirigintza aprobetxamenduak zuzenean sustatzaileak egin beharreko obretan gauzatu direlako; 3 hitzarmenetan, udalek ez dietelako Hitzarmen Batzarrei eskatu urbanizatze obrak egiteko kontratazio publikoetarako printzipioak bete ditzatela; 4 hitzarmenetan, udalaren beraren esleipen zuzenak izan direlako; eta hitzarmen batean, udalak bere gain hartu dituelako sustatzaileak egindako obrak, hitzarmena sinatu aurretik (APKLTBko 11. artikulua eta SPKLko 1. artikulua).
6. 2/2006 Legearen 160. artikuluan xedatutakoaren arabera (hitzarmen batzarraren sistemaren bitartez egikaritzeko hitzarmenak zuzentzen ditu), hirigintza kargen %7ren abalak aurkeztu behar dira, nahitaez. 8 hitzarmenetan batez ere bi alderdiri loturiko hutsak aurkitu dira: aurkezteko epea ez betetzeari loturiko hutsak, abala hitzarmena sinatzen denean aurkeztu behar baita; edo zenbatekoari loturikoak, hirigintza kargen guztizkoa kontuan hartuta eratu behar baitira abalak, ez soilik Birpartzelazio Proiektuko urbanizatze gastuen zenbatekoaren gainean (izan ere, hirigintza kargen barruan bestelako gastuak ere sartzen dira, berriz ostatu emateek, kalte-ordainketek, proiektuak idazteak eta bestelakoek eragindakoak) (2/2006 Legeko 147.1 artikulua).



V. AGURAINGO UDALA

Aguraingo Udalak 4.867 biztanle ditu 2009ko abenduaren 31n. Beraz, 2/2006 Legeko 91. artikuluaekin bat, ez du berezko gaitasunik plan orokorrak eta haien aldaketak onartzeko; eskumen hori Arabako Foru Aldundiari dagokio.

Aguraingo Udalaren Hirigintza Plangintzako Arau Subsidiarioak 1995eko irailaren 15eko 25/1995 Foru Aginduaren bitartez onartu ziren behin betiko, eta indarrean izan dira 2011ko martxoaren 28ko 148/2011 Foru Agindu bidez Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren zati bat behin betiko onartu arte.

Udalak zuzenean edo %100 udalarena den LUR LAUTADA XXI kide bakarreko sozietate anonimoaren bitartez kudeatzen du hirigintza. Hona hemen hirigintza arloan duen antolaketa egitura:

- Alkatea
- Hirigintzako Informazioko Udal Batzordea
- Aguraingo Koadrilako zerbitzu teknikoak (aparejadore bat eta arkitekto bat, lanaldi partzialean).

V.1 HITZARMENEN AZTERKETA, ETA AURKITUTAKO HUTSAK

V.1.1 AZTERTUTAKO HITZARMENETAKO HUTS KOMUNAK

1. Aztertutako hitzarmenetan ez da egin hitzarmenak interes orokorrerako onuragarri izango direla justifikatzen duen arrazoiketa dokumentaturik, salbu eremua hitzarmen batzarraren sistemaren bidez kudeatzeko egin ziren bi hitzarmenetan (ikus V.1.4 eta 5 atalak), 2/2006 Legeko 160.2 artikulua hala egitera behartzen baitu.

V.1.2 EKIALDEA-1 EREMUKO HIRIGINTZA APROBETXAMENDUA SALTZEKO HITZARMENA

Hitzarmen horrek aztertutako aldia baino lehenagoko beste hitzarmen batean du jatorria. Lehenagoko hitzarmen hori 2004ko maiatzaren 27an sinatu zuten alkateak eta HARRESI PARKEA, SA sozietatearen legezko ordezkariak. Sozietate misto horren %51, %100 udalaren jabetzakoa den LUR LAUTADA XXI, SAU sozietatearena da, eta Ekialdea-1 eremuko hirigintza kudeaketa egiteko sortu zen. Hitzarmen horren xedea zen aipatutako enpresari eremuko hirigintza aprobetxamenduaren %10 saltzea (1.106 mila euroan balioztatua), eremu horretatik kanpo urbanizatzeko obra batzuk kontratatzearen eta ordaintzearen truke. Horiek Udalak zehaztu behar zituen, 2005eko ekitaldia amaitu aurretik, beste hitzarmen bat sinatzearen bidez.

Bigarren hitzarmen horren zirriborroa 2006ko abenduaren 27ko Udalbatzan onartu zen. Hitzarmen horretan, hasiera batean, HARRESI PARKEA, SA sozietateak kontratatu beharreko hiru obra zehaztu ziren, eta obra horien aurrekontua aprobetxamenduaren balioztatzea baino handiagoa zen. Baina sozietateak obra horien ordainketa lehenengo



hitzarmenean zehaztutako zenbatekora mugatu zuen, eta Udalaren eskuk utzi zituen gainerako ordainketak. Hitzarmen hori ez zen sinatu, azkenean.

2008ko apirilaren 1ean, LUR LAUTADA XXI, SAUK HARRESI PARKEA, SA sozietatean zuen %51ko partaidetza ordura arte sozietate horretan bere bazkide zenari saldu zion, 1.410 mila euroan. Hortaz, eremuko hirigintza kudeaketaren ardura zuen enpresa %100 pribatu izatera pasatu zen.

2009ko martxoaren 25ean, Aguraingo Udaleko Udaltzako HARRESI PARKEA, SA sozietatearekin beste kontratu bat (hirugarrena) sinatzea onartu zuen, 2004an sinatutako hitzarmenean (lehena) adostutako hirigintza aprobetxamendua jasotzeko modua zehaztu zedin.

Hirugarren hitzarmenean, enpresak betebehartzat hartu zuen Aguraingo kirolguneko obrako (LUR LAUTADA XXI kide bakarreko sozietate anonimoari eskatutako obra) azken ziurtagiriak ordaintzea, aprobetxamenduaren zenbatekora arte. Enpresak ordainketa Udalak eskatzen zionean egin behar zuen, 2009ko urtarrilaren 1etik 2011ko martxoaren 31ra bitartean. Beraz, azken egun hori iritsitakoan kontraprestazioaren zenbateko osoa ordaindu behar zuen. Berme gisa, enpresak banku abala eman behar zion Aguraingo Udalari, adostutako zenbatekoarena eta iraupen eperik gabea. Bermea 2009ko irailaren 25ean aurkeztu zuen, baina soilik 953 mila eurorena, alegia, ordaindu beharreko ziurtagiriaren zenbatekoa, BEZik gabe.

Hitzarmen horiek egin diren denbora aldian, Ekialdea-1 eremuan bi hirigintza aldaketa egin dira: lehena 2005-2009 aldian onartu zen, eta eraiki beharreko etxebizitzaren kopurua gehitu zen, baina ez zen eremuko eraikigarritasun gordina aldatu; eta, bigarren hirigintza aldaketa, Hiri Antolamenduko Plan Orokor berrian sartu zen, eta metro karratu eraikigarrien kopurua eta eraiki beharreko etxebizitzaren kopurua gehitu ziren. Hona hemen hirigintzako magnitudeen aldaketa:

	Etxebizitza kopurua eta m2 eraikigarriak							
	Egoera		Aldaketako gehikuntza		Egoera		Egoera	
	1. hitzarmena		3.04.2007		3. hitzarmena		HAPO	
Erabilera mota	m2	kop.	m2	kop.	m2	kop.	m2	kop.
	Etx.	Eraikig.	Etx.	Eraikig.	Etx.	Eraikig.	Etx.	Eraikig.
BAOE.....	211	24.265	35	-	246	24.265	303	30.843
PTE (BAOEen prezioa + %30) ..	42	5.250	-	-	42	5.250	128	14.578
PME (BAOEen prezioa + %50) .	96	12.000	18	-	114	12.000	91	13.195
PME (BAOEen prez. + %100)...	70	8.750	-	-	70	8.750	43	5.375
Hirugar. Sektor. (merkataritza).	-	6.330	-	-	-	6.330	-	6.330
GUZTIRA	419	56.595	53	-	472	56.595	565	70.321

Lan hau egin den egunean, hitzarmeneko kontraprestazioa ez dago gauzaturik; ez da Aguraingo kirolguneko obraren ziurtagiriak ordaintzearen bitartez gauzatu.

Hitzarmen horretan honako huts hauek aurkitu dira:



1. Hirigintza aprobetxamenduaren salmentarako erabilitako balioztatzea, 2004ko maiatzean egin, ez dago behar beste justifikatuta; zehazki, ez dira behar beste justifikatu erabili diren koefizienteak. Gainera, balioztatze hori bizitokitarako erabilerako 50.265 m²-ko eraikigarritasunaren gainean egin zen (419 etxebizitzari eta hirugarren sektoreko merkataritza erabilerarako 6.330 m²-ko azalerari zegokiona), baina Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean jasotako eremuaren egoeran 63.990 m² eraikigarri bereizi ziren, 565 etxebizitzari eta merkataritza erabilerarako 6.330 m²-ko azalerari zegozkionak. Beraz, Ekialdea-1 eremuko hirigintza garapenerako Aguraingo Udalari dagokion hirigintza aprobetxamenduaren balioztatze berria egin beharko litzateke.
2. Aurkeztutako abala obren ziurtagirien zenbatekoari dagokio, BEZik gabe, baina BEZa ere kontraprestazioaren zati da. Zehazki, 953 mila euroren abala aurkeztu zen, eta ez hitzarmenaren prezioa den 1.106 mila euroena. Gainera, abal horren eragina eremuko eraikigarritasunaren eta bertan eraiki beharreko etxebizitzaren gehikuntza baldintzen pean dago. Gehikuntza horiek ez zirenez hitzarmenean jaso, Aguraingo Udalak, 2010eko abuztuaren 6an, aurreko abala alda zezala edo beste abal bat baldintzarik gabe aurkez zezala eskatu zion enpresari. 2011ko ekainaren 6an, abala egikaritu da eta %10era bitarteko zenbatekoa ordaintzeko eskatu.

V.1.3 LARRUA ONTZEKO LANTEGIARI DAGOKION EREMU ETENEN BEPB-KO LURSAIL BATERA BI LURSAILEN HIRIGINTZA ERAGINA ERAMATEKO HITZARMENA

2002ko maiatzaren 16an, Gobernu Batzordeak behin betiko onartu zuen Aguraingo larrua ontzeko lantegiari dagokion eremu eteneko Barne Eraberrikuntzako Plan Bereziko Birpartzelazio Proiektua. Proiektu horretan lursailak esleitu ziren, bakoitza zegozkion hirigintza eraginen zergekin, hirigintza kargak ordaintzeko. Birpartzelazio Proiektu horri epai bidez aurka egin zitzaion, ez zirelako hirigintza kargen barruan sartu Aguraingo larrua ontzeko lantegiaren lekualdatzeari loturiko gastuak. Ebazpenaren zain dago, lan hau egin den egunean. Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 1. zenbakiko Epaitegiak emandako ebazpenean, proiektua ez zela gelditu behar adierazi zuen. Beraz, eremuaren jabeetako batek obra lizentzia eskatu zuen, bere lursail etako bitan 20 etxebizitza eraikitzeko. Lizentzia hori 2002ko abenduaren 4an eman zitzaion, eta lursail horiei zegokien zatia urbanizatu zuen. Eta, horrez gain, abal bidez erantzun behar zion eremuko gainerako urbanizatze gastuen zati bati, jabe izanik hala egitea baitzegokion. Abala ez zen jarri, abalaren beraren balio aldia eta hirigintza orokorra egiteko data ez zirelako behar bezala zehaztu.

Eremua urbanizatzeko obren gauzatzea eta Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearen idazketa eragin zuen enpresaren lekualdatzea zalantzan zeudenez, 2005eko irailaren 8an Aguraingo Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak hitzarmen bat egitea onartu zuen. Hitzarmen horren bitartez, enpresari eraikitako etxebizitzaren lehen erabilerako lizentzia ematea erabaki zen. Etorkizunean gainerako eremuan egin beharreko hirigintza obrak gauzatuko zirela bermatzeko, enpresak egiteke zegoen hirigintza eragina (eraikitako bi lursailen zegokiena) bere jabetzako beste lursail batera lekualdatzeko ardura hartu zuen. Beraz, azken lursail



horrek aipatutako hiru lursailei zegozkien hirigintza gastuak hartu zituen; 258 mila euro, hain zuzen.

Lan hau egin den egunean, eraikitako 20 etxebizitzaren lehen erabilerako lizentzia emanda dago, eta hitzarmenetik eratorritako Birpartzelazio Proiektuaren aldaketa Jabetza Erregistroan erregistratuta dago.

Hitzarmen horretan ez da berariazko hutsik ikusi.

V.1.4 ZADORRA BLH-0 S0 EREMUA KUDEATZEKO ETA EGIKARITZEKO HITZARMENA

2007ko apirilaren 12an, lurzoruaren jabe gehienek proposatuta, Aguraingo Udalak behin betiko onartu zuen Aguraingo Zadorra BLH-0 S0 eremuan hitzarmen batzarraren sistemaren bidez hirigintza garatzeko eta egikaritzeko hitzarmena. Hitzarmen horren bitartez, jabeek honako betebeharrak hartu zituzten beren gain:

- Hitzarmen Batzarra osatzea, 2/2006 Legeko 161. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Birpartzelazio Proiektua egitea, Hitzarmen Batzarra eratzen denetik hilabeteko epean.
- Eremu hori garatzen duen Plan Partzialaren eta Arau Subsidiarioen arabera, nahitaez eta doan laga behar diren lursail guztiak lagatzea, Urbanizatze Proiektuan eta Birpartzelazio Proiektuan erabakitako ezaugarriekin eta zehaztasunarekin.
- Eremuaren batez besteko hirigintza eraikigarritasunaren %10 Aguraingo Udalarari doan lagatzea. Lursail eraikigarrian gauzatuko litzateke, baina lagapenaren zati bat edo osoa monetarizatzeko aukera legoke.
- Eremuko hirigintza karga guztiak beren gain hartzea; eta Arau Subsidiarioetan eta hirigintzako legedian unitateari egotzitako urbanizatze obrak, azpiegiturak eta zerbitzuak gauzatzea.
- Hitzarmen Batzarra eratzean, hirigintza kargen zenbatekoaren %7ko abala ematea.

Lan hau egin den egunean, Hitzarmen Batzarra eratuta dago, eta Hirigintza Jarduneko Programa onartuta dago, baina Birpartzelazio Proiektua ez da aurkeztu oraindik.

Hitzarmen horretan honako huts hauek aurkitu dira:

1. Hitzarmenean erabakitakoaren arabera, Hitzarmen Batzarra eskritura publiko bidez eratu eta gero, sinatu duten jabeek Eremuko Birpartzelazio Proiektua egiteko betebeharrak hartzen dute, Batzarra eratzen denetik hilabeteko epean gehienez ere. Hitzarmen Batzarraren eskriturak 2007ko uztailaren 17an egin ziren, eta lan hau egin den egunean, Birpartzelazio Proiektua ez da aurkeztu, oraindik.
2. Ez da hirigintza kargen %7ko abala aurkeztu, hitzarmenean hartutako betebeharren berme gisa (89 mila euro), nahiz eta 2/2006 Legeak 160.6 artikuluan abala nahitaez aurkeztu behar dela agindu.



V.1.5 ERAS DE SAN JUAN E (D6) HJU KUDEATZEKO ETA EGIKARITZEKO HITZARMENA

2007ko irailaren 5ean, Tokiko Gobernu Batzarrak behin betiko onartu zuen Eras de San Juan HJU-E (D6) hirigintzako jardun unitateko lurzorua %85en jabe den enpresarekin egindako hitzarmena, eremuan hitzarmen batzarraren sistemaz hirigintza garapena egiteko eta urbanizatzeko. Horretarako, enpresak honako betebeharrak hartu zituen bere gain:

- Hitzarmen Batzarra osatzea, 2/2006 Legeko 161. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Birpartzelazio Proiektua egitea, jardueraren etekinak eta kargak berdinbanatzeko; eta aterako diren lursailak Xehetasunezko Azterketaren arabera eratzeta. Hilabeteko epea ezarri zen horretarako, Hitzarmen Batzarra eratu eta handik aurrera.
- Nahitaez eta doan laga beharreko lursailak eta ondasunak ematea, Legean eta garapen plangintzan ezarritako baldintzetan.
- Eremuko hirigintza karga guztiak beren gain hartzea; eta Legean eta garapen plangintzan unitateari egotzitako urbanizatze obrak, azpiegiturak eta zerbitzuak gauzatzeta.
- Kalkulatutako hirigintza kargen zenbatekoaren %7ren abala ematea.

Hitzarmen horretan honako huts hauek aurkitu dira:

1. Hitzarmen Batzarra eskritura publiko bidez eratu zen 2007ko azaroaren 16an, hiru hil eta erdiko atzerapenarekin, nahiz eta 2/2006 Legearen 161.1 artikuluan hilabeteko epea ezarri batzar hori eratzeko. Horrez gain, Hitzarmen Batzarra ez da erregistratu Arabako Foru Aldundiaren mendeko Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan, 2/2006 Legearen 162.1 artikuluan erregistratze hori betebehartzat ezarri den arren.
2. Ez da Birpartzelazio Proiektua aurkeztu, eta, beraz, ez da bete horretarako ezarritako epea (hilabeteko epea, Hitzarmen Batzarra eratzen denetik).
3. Lan hau egin den egunean, oraindik ez da aurkeztu hirigintza kargen %7ren abala. Abal hori hitzarmena sinatu zenean aurkeztu behar zen, 2/2006 Legeak 160.6 artikuluan xedatu bezala.

V.1.6 KUDEAKETAREN ARDURA EMATEKO HITZARMENA LUR LAUTADA XXI KIDE BAKARREKO SOZIETATE ANONIMOAREKIN, LITUTXIPI 6 BEPB GARA DADIN

2006ko uztailaren 28an, Udaltzako LUR LAUTADA XXI udal enpresaren legezko ordezkariarekin hitzarmen bat egitea onartu zuen. Hitzarmen horren bidez, «Litutxipi» 6 eremuko Barne Eraberrikuntzako Plan Bereziko hirigintza garapenaren kudeaketaren ardura eman zen.

Ardura-emate horren barruan honako hauek sartu ziren: batetik, Arau Subsidiarioetako «Litutxipi» 6 eremuko Barne Eraberrikuntzako Plan Berezian eta hori garatzen duen

urbanizatzeko proiektuan jasotakoa egikaritzeko beharrezko izango diren jarduera guztiak kudeatzea, urbanizatzeko obra guztiak egin eta Udalak jaso arte; eta, bestetik, lursailen jabeek obra horiek ordaintzea. Eta, zehazki:

- Proiektua, urbanizatzeko obrak eta obren zuzendaritza eta ikuskapena kontratatzea, APKLTBren arabera.
- Jabeei ezarri beharreko hirigintza kuotak prestatzea eta kobratzea, eta haien jarraipena egitea, guztiz ordaindu arte.
- Birpartzelazio Proiektuaren behin betiko likidazio kontua egitea.
- Zerbitzu horiek egiteagatik ordainsariak eta gastuak ordaintzea.
- Kudeaketaren ardura-ematea behar bezala gauzatu eta burutu dadin beharrezko izango den beste edozein jarduera.

Urbanizatzeko obrak kontratatzeko espedientea aztertu dugu, eta honako hau ikusi dugu:

1. Urbanizatzeko Proiektua eta obren zuzendaritza eta ikuskapena zuzenean kontratatu dira. Horrenbestez, ez da bete hitzarmenean agindutakoa eta kontratuei buruzko oinarriko legedian xedatutakoa, legedi horrek Administrazioa behartzen baitu obrak publizitatearen, lehiaren, berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioak betetzeko (APKLTBko 11.1 artikulua).
2. Ezin izan ditugu egiaztatu hirigintza kargen likidazioaren kontutik ateratako diru kopuruen frogagiriak.



VI. ASTIGARRAGAKO UDALA

Astigarragako Udalak 4.709 biztanle ditu 2009ko abenduaren 31n. Beraz, 2/2006 Legeko 91. artikuluekin bat, ez du berezko gaitasunik plan orokorrak eta haien aldaketak onartzeko; eskumen hori Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio.

Astigarragako Udalaren Hirigintza Plangintzako Arau Subsidiarioak 2000ko otsailaren 28an onartu zituen behin betiko Diputatuen Kontseiluak, eta indarrean izan dira 2008ko martxoaren 11n Diputatuen Kontseiluak Hiri Antolamenduko Plan Orokorra zenbait baldintzarekin behin betiko onartu zuen arte. Hain zuzen, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra ez zen onartu hirigintzako esku-hartzeko alor jakin batzuetarako, baina alor horien kalifikazioak eta sailkapenak aldatu egin ziren gero, eta Diputatuen Kontseiluak 2009ko urriaren 20an onartu zuen Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Testu Bategina.

Udalak zuzenean edo % 100 udalarena den ASTIGARRAGA LANTZEN, SA sozietatearen bitartez kudeatzen du hirigintza. Hona hemen hirigintza arloan duen antolaketa egitura:

- Alkatea
- Hirigintzako Udal Informazio Batzordea
- Zerbitzu teknikoak, honako kide hauek osatuak:
 - Hiru funtzionario: arkitekto bat, Ingurumen eta Jardueretako teknikari bat eta administrari bat.
 - Kanpoko laguntzaileak: arkitekto bat eta aholkulari juridiko bat, biak lanaldi partzialez kontratatuak.

VI.1 HITZARMENEN AZTERKETA, ETA AURKITUTAKO HUTSAK

VI.1.1 AZTERTUTAKO HITZARMENETAKO HUTS KOMUNAK

1. Eremua hitzarmen batzarraren sistemaz kudeatzeko sinatu diren bi hitzarmenetan (ikus VI.1.3 eta 8 atalak), Astigarragako Udalak ez die eskatu Hitzarmen Batzordeei APKLTBn edo SPKLn xedatutakoa bete dezatela urbanizatze obrak kontratatzeke. Horrenbestez, ez da bete 2/2006 Legeko 172.2 artikulua.
2. Astigarragako Udalak hirigintza aprobetxamenduaren lagapena aprobetxamendua monetarizatzearekin ordeztu du hiru hitzarmenetan (ikus VI.1.3, 7 eta 8 atalak). Hiru hitzarmen horietan, ez da arrazoitu edo justifikatu ordezte hori, nahiz eta justifikatu behar dela xedatzen duen, salbuespenez, 2/2006 Legeko 7. xedapen gehigarriak. Hitzarmen horietan klausula bat sartu beharko litzateke, kontraprestazioa ezin dela izan inoiz, bere garaian, dagokion Birpartzelazio Proiektuan jasoko den hirigintza aprobetxamenduaren balioztatzea baino txikiagoa adieraziko lukeena.
3. Azttertutako hitzarmenetan, salbuespenak salbu, ez da egin hitzarmenak interes orokorrekoak izango direla justifikatzen duen arrazoiketa dokumentaturik, nahiz eta 2/2006 Legeko 4.2.b artikuluan arrazoitu behar dela xedatu den. Hona hemen aipatutako salbuespenak: Ergobia Ibilbidea 9 hirigintzako esku-hartzeko alorra egikaritzeko eta



Gartziategi Berri etxearen jabetza kendu zitzaienei ostatu emateko egindako hitzarmenak (ikus VI.1.4 eta 7 atalak); eta eremua hitzarmen batzarraren sistemaz kudeatzeko egin ziren hitzarmenak (ikus VI.1.3 eta 8 atalak), halakoak egiteko betebeharra 2/2006 Legeko 160.2 artikuluan ezarri baita.

VI.1.2 ERG-6 ETA ERG-13 HIRIGINTZAKO JARDUN UNITATEAK GARATZEKO HITZARMENA

Hitzarmen hori Astigarragako Udaleko Udaltzako onartu zuen 2006ko urtarrilaren 27an, eta xede du ERG-6 eta ERG-13 hirigintzako jardun unitateen hirigintza garapena ez gelditzea (bi eremu horiek mugakide dira, Ergobia auzoan daude eta enpresa bera da bien jabe). Izan ere, ERG-13 hirigintzako jardun unitatean eraikuntza garapen arrunta egiteak berekin zekarren ERG-6 hirigintzako jardun unitatearekin batera garajeak jartzeko sotoa eraikitzea, eta, horren gainean, Udalak jabetza auzi bat zuen hasierako jabearekin (jabe horrek, gero, gaur egun eremu horien jabe den enpresari saldu zion lursaila). Auzi hori behin betiko ebatzita dago lan hau egin den egunean.

Udalak, hitzarmen horren bidez, ERG-6 hirigintzako jardun unitateko lursailean zero kotaraino eraikitzeke lizentzia emango zuela hitz eman zuen, ERG-13 hirigintzako jardun unitatearekin batera garajeak eraiki zitezten.

Enpresak 2009. eta 2010. urteen bitartean gauzatu du eraikuntza ERG-13 eremuan. 2010eko uztailaren 20an, Tokiko Gobernu Batzarrak eraikitako eraikinen lehen erabilerako lizentzia eman zuen.

Hitzarmen horretan ez da berariazko hutsik ikusi.

VI.1.3 GALTZAUER-MURGIERROTA 6 HIRIGINTZAKO JARDUN UNITATEA HITZARMEN BATZARRAREN SISTEMAZ EGIKARITZEKO HITZARMENA

Hitzarmen hori 2007ko martxoaren 30ean onartu zuen behin betiko Udaltzako, eta xede du jardun unitate horretan hirigintza gauzatea, hitzarmen batzarraren sistemaz. Hitzarmen horretan, jabeek honako betebeharrak hartu zituzten beren gain:

- Hitzarmen Batzarra osatzea, 2/2006 Legeko 161. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Hitzarmen Batzarraren bitartez, birpartzelazioa egitea, etekinak eta kargak berdinbanatzeko.
- Nahitaez eta doan laga beharreko lursailak eta ondasunak ematea, eremu horretako Arau Subsidiarioek xedatutako baldintzetan.
- Birpartzelazio Proiektuan eta Arau Subsidiarioetan jasotako unitateko zerbitzuak, azpiegiturak eta urbanizatzeko obrak egiteak eta area urbanizatzeko eragingo dituen karga guztiak beren gain hartzea, birpartzelatzeetik aterako den proportzioan eta 2/2006 Legeko 163. artikuluan xedatutako baldintzetan.
- Aprobetxamenduaren %10 lagatzea (217 mila euroan balioztatua).
- Hirigintza kargen zenbatekoaren %7ko abala formalizatzea.

Fiskalizazio aldiaren hitzarmena sinatu zuen enpresa hirigintza eta eraikuntza egiten ari da.



Hona hemen hitzarmen horretan ikusi diren huts nagusiak:

1. Hitzarmena sinatu dutenek ez dute aurkeztu hirigintza kargen %7ren abala. Udalak eskatutako abalaren zenbatekoa (14 mila euro) ez da nahikoa, urbanizatze gastuen %7 delako, eta ez 2/2006 Legeko 160.6 artikuluan eskatzen dena. Hain zuzen ere, artikulua horrek hitzarmena sinatzen dutenak behartzen ditu hirigintza kargen %7ren abala aurkeztera, eta hirigintza kargen barruan daude proiektuaren gastuak eta kalte-ordainak (616 mila euro). Beraz, 43 mila euroren abala aurkeztu beharko litzateke.
2. Hitzarmena sinatu zuen enpresak hirigintza aprobetxamendua monetarizatzearen ordainketa atzeratzea eskatu zuen. Atzerapena Alkatetzaren 2008ko uztailaren 15eko 759/2008 Dekretu bidez onartu zen, aurrez enpresak zorraren zenbatekoaren abala aurkeztu eta gero. Dekretu horretan, likidatzeko epemuga 2008ko abenduaren 24a jarri zen, eta berandutze interesak ezarri ziren; baina soilik zorraren ordainketan berandutuz gero, ez aipatutako atzerapenagatik. Enpresak ez zuenez zorra jarritako epean ordaindu, abala diru egin zen, bi zatitan: bata 2009ko otsailaren 13an (159 mila euro), eta, bestea, 2009ko irailaren 16an (gainerako zenbatekoa). Udalak ez zituen likidatu itundutako berandutze interesak. Interes horiek eta atzeratzeagatik sartu ez zirenak, biak batera, 19 mila euro izango ziren.

VI.1.4 GARTZIATEGI BERRI ETXEAREN JABETZA KENDU ZITZAIENEI OSTATU EMATEKO HITZARMENA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2005eko uztailaren 20an, desjabetzeko espedientea hasi zuen, Erreterian Urumeako autobia eta A-8 autobidea lotzen dituen tartean Donostiako Bigarren Ingurabidea Eraikitze Proiekturako. Aipatutako desjabetzeko espedienteak berekin ekarri zituen, batetik, Astigarragako Gartziategi Berri etxea eraistea, eta, bestetik, eraikin horretako etxebizitzaren jabetza kentzea.

2/2006 Legearen (2006ko ekainaren 30ekoa) 4. artikuluan xedatutako printzipioetako bat da hirigintzako jarduera orok interes publikoa izan behar duela. Horren arabera, eta pertsona guztiek etxebizitza duina eta egokia izateko duten eskubidea bermatze aldera, 2007ko uztailaren 24n, Udalbatzak hitzarmen horren behin betiko testua onartu zuen, jabetza kendu zitzaien biztanleei Ergobia ibilbidea 14 eremuan (9 HEA) eraikiko diren babes publikoko etxebizitzetan ostatu emateko, jabetza kendu zitzaion jabe bakoitzaren behar eta egoera pertsonal eta ekonomikoen arabera.

Lan hau egin den egunean, babes ofizialeko etxebizitzak ez dira eraiki oraindik. Sustatzaileak jakinarazi duenez, etxebizitzak egiten 2014ko urtarrila inguruan hasiko direla aurreikusi dute eta, beraz, 2015. urtean esleiri daitezke, gutxi gorabehera.

Hona hemen hitzarmen horretan ikusi diren huts nagusiak:

1. Hitzarmena jendaurrean jarri zen aldian, hitzarmenean aipatu ez zen pertsona batek alegazioak egin zituen. Zehazki, desjabetzeko zen eraikineko bizilaguna zela egiaztatzen zuen, eta berriz ostatu emateko hitzarmenean sar zezatela eskatu zuen. Udaleko lege aholkulariak alegazio horren aldeko txostena egin zuen. Hirigintza Batzordeak ere



onartu zuen, eta alegazioaren onarpena berretsi zuen Udalbatzak, 2007ko uztailaren 24an. Jabe hori sartu eta gero, hitzarmenaren behin betiko testua onartu zen. Beraz, hitzarmenean ezarritakoaren arabera, 10 bizilaguni eman behar zitzaaien berriz ostatu, baina ez zen aldatu bigarren xedapena; alegia, 9 etxebizitza erreserbatu behar zirela zioen, eta ez 10 etxebizitza, alegazioa onartu eta gero egin behar zen bezala.

VI.1.5 UDALAREN JABETZAKO LURSAIL BAT TRUKATZEKO HITZARMENA

2007ko maiatzaren 21ean, Udalbatzak behin betiko onartu zuen enpresa batekin sinatutako hitzarmena, Udalaren jabetzako lursail urbanizatu bat (industrialde batean zegoena) obra batzuekin trukatzeko. Udaleko arkitekto teknikoak obrek 211 mila euroren eta 209 mila euroren balioa zutela kalkulatu zuen.

2 mila euroren aldea zegoela ikusita, erabaki zuten enpresak bere gain hartuko zituela notario eta erregistro gastuak.

Hona hemen hitzarmen horretan ikusi diren huts nagusiak:

1. Ez da behin ere aipatu truke hori egiteko beharra zegoenik, ez eta hori zenik ere interes orokorrerako modurik egokiena. Ez hitzarmenean ez trukatzeko espedientean, ez da frogatu bi eragiketa trukatzeko kontratu bakarrean jasotzea gomendatzen duten inguruabarrak daudunik. Baldintza normaletan, bi eragiketak bakoitza bere aldetik egin behar lirateke, eta kontratazio publikoa zuzentzen dituzten printzipioak betez: alde batetik, Lurzoru Ondare Publikoko lursail bat besterentzea; eta, bestetik, hiru obra kontratatzea. Gainera, ez da justifikatu enkantearen arau orokorra betetzetik salbuetsita dagoenik; hain zuzen ere, horixe da administrazio publikoen ondasun higiezinak besterentzeko modu arrunta.
2. Obra batzuen ordezkari trukatzeko erabaki izanaren ondorioz, obrak enpresari zuzenean esleitu zaizkio. Horrenbestez, ez dira bete APKLTBko 11.1 artikuluko Administrazio Publikoen kontratuarentzako ezarri dituen publikitate eta lehia printzipioak.
3. Espedientean ez da frogatu kontraprestazioak baliokideak direnik, ez baita behar bezala justifikatu egindako obren balioztatzea.

VI.1.6 NEKANENEA-DONOSTIA IBILBIDEA, 21 HIRIGINTZA HITZARMENA

Hitzarmen hori 2007ko maiatzaren 21ean onartu zuen Astigarragako Udaleko Udalbatzak. Hitzarmenean, jardun eremuaren jabeek hitz eman zuten, baldin lurak hirugarrenei emanek gero, hirugarrenek berriaz beren gain hartuko zituztela Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean «Portutxo» 5.2 hirigintzako jardun unitaterako ezarri ziren zehaztapenak mantentzeko betebeharrak.

2010eko uztailaren 20an, Tokiko Gobernu Batzarrak eraikitako 22 etxebizitzaren lehen erabilera lizentzia eman zuen, baina aurrez zegokion hirigintza hitzarmena sinatu gabe, nahiz eta nahitaez hala egin behar dela xedatzen duen 2/2006 Legeko 160.2 artikuluko, hitzarmen batzarraren sistemaz eremua garatzeko.



Hona hemen hitzarmen horretan ikusi diren huts nagusiak:

1. «Portutxo» 5.2 hirigintzako jardun unitateko lursailen (han dago Nekanenea lursaila) jabeentzako, hitzarmenaren xedea generikoa eta zehaztugabea da. Alde batetik, Udalak Astigarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean jasotako hirigintza zehaztapenak mantentzea betebehartzat hartu zuen (Hiri Antolamenduko Plan Orokor hura Gipuzkoako Foru Aldundiak behin betiko onartu gabe zegoen, garai hartan); eta, bestetik, jabeek hitz eman zuten, baldin lursailak hirugarrenei emanez gero, beren gain harraraziko zizkietela, berariaz, hitzarmen horretan jasotako betebeharrak, baina betebehar horiek ez ziren zehaztu.

VI.1.7 ERGOBIA IBILBIDEA 9 HIRIGINTZAKO ESKU-HARTZEKO ALORRA EGIKARITZEKO HITZARMENA

Hitzarmen horrek 2006ko beste hitzarmen batean du jatorria. Hitzarmen hartan, Astigarragako Udalak Arau Subsidiarioetan 14. alorraren antolamendu xehatua sartze aldera egin beharreko aldaketa izapidetzeko betebeharra hartu zuen. 2003ko abenduan Arau Subsidiarioak berraztertze kontratua egin zen, eta orduz geroztik egiten ari ziren berrazterketaren barruan zegoen aldaketa hori. Berrazterketa hori egiten ari ziren aldirian 2/2006 Legea onartu zen, eta Arau Subsidiarioei izena aldatu zitzaien; udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra izango zen, aurrerantzean. Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean alor horren antolamendu xehatua sartu da.

2006ko uztailaren 28an, Udalbatzak «Ergobia Ibilbidea» 14. alorra (Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berraztertu zenean «Ergobia Ibilbidea» 09 HEA izena jarri zitzaion) handitzea onartu zuen; zehazki, 9.047 m² gehiago ematea. Beraz, 94.200 m² -ko azalera hartu zuen. Eremu-handitze horren ondorioz, hirigintza kargak ere gehitu ziren. Beraz, aurreko hitzarmena aldatzea erabaki zen. Hain zuzen, eranskin bat sinatu zen, eta eranskin horretan 2.000 m² gehitu zitzaizkion hirugarren sektoreko erabileren aprobetxamenduari, kargen gehikuntza orekatzeko. Eranskina 2007ko maiatzaren 23an sinatu zen, 2007ko apirilaren 9an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren 2008ko martxoaren 11ko Erabaki bidez onartu zen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin betiko. Onarpen horrek hitzarmeneko zenbait alderdi aldatzea ekarri zuen, hala nola: hornidura lursailak handitzea, etxebizitza bakoitzeko garajeen ratioa murriztea, hirigintza kargak gehitzea eta babes ofizialeko etxebizitzaren lurzuaren jabetza soila lagatzea Udalari. Hitzarmenaren aldaketa hori beste eranskin batean jaso zen, eta eranskina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2008ko ekainaren 30ean.

Hitzarmen bakarra izan zedin, aldeei segurtasun juridikoa emango zien testu bategina idaztea erabaki zen, eta testua 2009ko ekainaren 25eko Udalbatzan onartu zen.

Hitzarmenaren xedea Udalari zegokion hirigintza aprobetxamendua monetarizatzea zen, batetik; eta 9-HEA hirigintzako esku-hartzeko alorrean hirigintza garapena egitea, bestetik. Eremu horrek garrantzi handia du udalerrirako, azpiegitura garrantzitsuak elkartzen baitira bertan, hala nola: etorkizunean egingo den Abiadura Handiko Trenaren geltokia, Urumeako

autobia eta Donostiako Bigarren Ingurabidea deritzon autobidea. Hortaz, eremu hori bertako eta lurraldeko egituraren elementu gako bihurtu da. Horregatik, Udalak baldintza zorrotzagoak jarri nahi zituen, esku-hartzea kalitate handiagokoa izan zedin.

Hitzarmena lursailaren %82,75en jabe zen enpresarekin sinatu zen. Enpresa horrek hirigintza aprobetxamenduari zegokion diru kopurua (7.933 mila euro) Udalari ordaintzeko betebeharra hartu zuen, eta beste hauek egiteko betebeharra ere:

- Udalak Kultura Etxea eraikitzeke enkargatuko dituen proiektuak ordaindu; eta Kultura Etxea eraiki, 5.000 mila euroren zenbatekoraino. Eta, zenbatekoa txikiagoa izanez gero, 5.000 mila eurorainoko aldea Udalari eman.
- Hitzarmen horretatik eratorritako beharrezko hirigintzako dokumentuak ordaindu.
- Jardun unitatea urbanizatzeko obra guztiak ordaindu (unitate horren barruan sartu zen Urumea ibaiertza, ERG-2 hirigintza jardun unitatera arte); eta pasealekua eta Donostia eta Hernani bitarteko errepidearen alboko pasealekua formalizatu. Hori guztia 9-HEA hirigintzako esku-hartzeko alorraren barruan.
- 800 etxebizitza eraiki, guztiak batera; babes ofizialeko 160 etxebizitza, prezio itunduko 104 etxebizitza libre eta 536 libre.
- «Umako» etxeko bizilagunei jardun eremutik kanpo ostatu ematearen kostua ordaindu; eta geratuko den lursail libre eta ingurua urbanizatu. Horren zenbatekoak, gehienez ere, 300 mila euro izan behar du.
- Sistema orokorretara eta tokikoetara bideratutako lursailak Udalari laga.
- 1.200 m²-ko lokal bat Udalari laga.
- Gehienez ere 2.200 mila euro eman, Urumea ibaia bideratzeko obren ondorioz Udalari dagozkion kargen zerga gisa.
- Babes ofizialeko etxebizitzak hartuko dituen lurzorua titulartasuna Udalari laga; beraz, aipatutako lursailen gaineko lurrazal eskubideak eratuko dira.

Udalak, bere aldetik, eremu horretan hirigintza gauzatzeko beharrezko izapideak bultzatzeko betebeharra hartu zuen. Eta enpresak, bestalde, plangintza gauzatzeko eta lursailetan eraikuntza egingo zuen Hitzarmen Batzarra era zedin sustatzeko betebeharra.

Hona hemen hitzarmen horretan ikusi diren huts nagusiak:

1. Umako etxea eraitsi eta bertako bizilagunei ostatu ematea zegoen erabakita. Hala ere, hitzarmen hura sinatu zuen sustatzaileak eta etxe horretako bizilagun batek alegazio bat aurkeztu zuten. Alegazioan eskatu zuten higiezinaren eraisketa atzera zedila, bizilagunei ostatu eman ahal izateko. Beraz, hitzarmeneko 7.5 xedapenean jasotako 12 hilabeteko epearen ordez 24 hilabeteko epea ezarri zen, etxea eraisteko. Alegazio hori 2009ko abenduaren 23an onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak, eta idazkariak horren berri eman zien tartean zirenei. Hala ere, 2010eko otsailaren 1ean sinatutako hitzarmenaren testu bateginean ez zen aldatu 7.5 xedapeneko bigarren paragrafoa (etxea eraisteko 12 hilabeteko epea mantendu zen), eta lehenengo eraikitze lizentzia lortzeko baldintza gisa ezarri zen hori.



2. Hitzarmenaren testu bategineko 7.4 xedapenean agindutakoaren arabera, jardun unitateko sustatzaileek batera egin behar zituzten, nahitaez, zenbait etxebizitza mota (etxebizitza libreak, babes ofizialekoak eta prezio itunduko etxebizitza libreak), eta etxebizitza horiek Hirigintza Jarduneko Programan zehaztutako jarduteko aldietan tartekatu behar zituzten. Lan hau egin den egunera arte, prezio itunduko etxebizitza libreen bloke bat egiteko lizentzia (2009ko abendua) eta etxebizitza libreen bloke bat egiteko lizentzia (2011ko urtarrila) eman dira. Eta, lehen aldian aurreikusitakoaren arabera, etxebizitza libreen beste hiru bloke eraikiko dituzte 2013. urtera arte. Horrenbestez, ez da betetzen ari aipatutako xedapenean agindutakoa.
3. Hitzarmeneko 7.1 xedapenaren arabera, alor horretako sustatzaileek beren gain hartu behar zuten Kultura Etxearen eraikuntza; kontraprestazioaren zenbatekoa (eraikuntza + proiektua) 5.000 mila euroan balioztatu zuten. Proiektuaren ardura Udalak izango zuen, eta sustatzaileak ordainduko zuen; obra, baina, sustatzaileak egin behar zuen. Xedapen horren 5. puntuan ezarritakoaren arabera, sustatzaileak plaza baten hirigintza egin behar zuen 9 HEA hirigintzako esku-hartzeko alorretik kanpo; edo, horren orde, Kale Nagusia oinezkoentzat jarri behar zuen. Horren zenbatekoa, gehienez ere, 300 mila euro izango zen. Hitzarmenean klausula horiek jartzeak obrak zuzenean esleitzen direla esan nahi du. Ez da bete Administrazio Publikoetako kontratuei buruzko oinarrizko legedia. Hain zuzen ere, legedi horrek Administrazio Publikoak behartzen ditu obrak egiterakoan publizitate, lehia, gardentasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzera (SPKLko 1. artikulua), eta hitzarmenean sustatzaileak egin beharreko azpiegituren esleipendun bihurtu dira, zuzenean.

VI.1.8 ERGOBIA IBILBIDEA 9 HIRIGINTZAKO ESKU-HARTZEKO ALORRA HITZARMEN BATZARRAREN SISTEMAZ GARATZEKO HITZARMENA

Hitzarmen hori 2008ko irailaren 15eko Udalbatzan onartu zen, eta xede du alor horretan hirigintza gauzatzea, hitzarmen batzarraren sistemaz. Hitzarmen horretan, betebeharrak hauek jarri zaizkie jabeei:

1. Hitzarmen Batzarra osatzea, 2/2006 Legeko 161. artikuluan xedatutakoaren arabera.
2. Hitzarmen Batzarraren bitartez, dagokion Birpartzelazio Proiektua egitea. Proiektu horretan, jabeen eskubideak eta betebeharrak beren lursailen azalerarekiko proportzionalak izan behar dira.
3. Hirigintza eraikigarritasunaren %10 Udalari lagatzea, aurrez aztertutako 2006ko otsailaren 10eko hitzarmenean ezarritakoaren arabera (ikus VI.1.7).
4. Doan laga beharreko lurak eta ondasunak ematea, Legean eta Plangintzan ezarritako baldintzetan.
5. Merkataritza sozietateak, bai eta Batzarrera atxikiko diren gainerako jabeek ere, hirigintza kargak beren har hartu beharko dituzte, eta Batzarraren bitartez gauzatu beharko dituzte alor horri legez, plangintzan edo hitzarmenean egotzitako urbanizatze obrak eta azpiegiturak.



Udalak, bere aldetik, betebeharra hartu zuen hitzarmen batzarraren sistemaren aplikazioa eta hirigintza kudeaketarako tresnak izapidetzeko, ahalik eta eperik laburrenean etxeak eraikitzen has zitezen.

2009ko abenduaren 23an, prezio itunduko 120 etxebizitza libre eraikitzeko lizentziak eman ziren, eta 2011ko urtarrilaren 27an 84 etxebizitza libre eraikitzeko lizentziak eman ziren.

2013. urtean bukatuko da lehen aldia, eta urte horretara arte beste hiru lursailetan etxebizitza libreak eraikitzea aurreikusi da. Kultura Etxea lehen aldian egitea aurreikusi zen, baina IBAI-ONDO etxea kultura ondasun deklaratu izanaren ondorioz, Kultura Etxea hartuko duen lursaila birmoldatu behar da.

Hona hemen hitzarmen horretan ikusitako hutsak, aurreko hitzarmenean aurkitutakoez gain (hartako estipulazioak onartu dira):

1. Hitzarmen Batzarrak urbanizatzeko gastuen (14.785 mila euroan zenbatetsiak) %7ren abala aurkeztu zuen; baina, 2/2006 Legeko 160.6 artikuluan xedatutakoarekin bat, hirigintza kargen guztizko zenbatekoarena izan behar zen (Birpartzelazio Proiektuaren arabera, zenbateko hori 21.973 mila euro zen).



VII. BAKIOKO UDALA

Bakioko Udalak 2.470 biztanle ditu 2009ko abenduaren 31n. Beraz, 2/2006 Legeko 91. artikuluekin bat, ez du berezko gaitasunik plan orokorrak eta haien aldaketak onartzeko; eskumen hori Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio.

Hirigintza Plangintzako Arau Subsidiarioak 2001eko abenduaren 14ko 810/2001 Foru Agindu bidez onartu zituen Bizkaiko Foru Aldundiak behin betiko, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2003ko urriaren 1ean. Zortzi urteko iraupena izango zutela aurreikusi zuten.

Udalak zuzenean kudeatzen du hirigintza. Hona hemen hirigintza arloan duen antolaketa egitura:

- Alkatea
- Hirigintzako Udal Informazio Batzordea
- Zerbitzu teknikoak, bi aparejadorek eta arkitekto batek (lanaldi partzialez kontratatua) osatuak.

VII.1 HITZARMENEN AZTERKETA, ETA AURKITUTAKO HUTSAK

VII.1.1 AZTERTUTAKO HITZARMENETAKO HUTS KOMUNAK

1. Legez Udalari dagokion hirigintza aprobetxamenduaren behin betiko balioztatzea Birpartzelazio Proiektutik ondorioztatzen dena da. Beraz, hirigintza aprobetxamenduaren lagapena aprobetxamendua monetarizatzeaz ordezkatu den lau hitzarmenetan (ikus VII.1.2., 3., 5. eta 6. atalak) behin-behinekotasunaren klausula bana izan beharko litzateke, aprobetxamenduaren %10en balioa ezin delako izan Proiektu horretatik aterako dena baino txikiagoa. Gainera, aztertutako hitzarmen horietan zerbitzu teknikoek egin dituzten aprobetxamenduaren aditu balioztatzeak ez dira behar bezala justifikatu edo ez dute oinarri nahikorik.
2. Azttertutako aldian, egindako 5 hitzarmenetatik 4tan hirigintza aprobetxamenduaren lagapenaren ordezkari aprobetxamendua monetarizatu da, baina ez dago hori justifikatzen duen dokumenturik. 3/1997 Legearen artikuluko bakarreko 2. puntuan xedatutakoaren arabera, jabeek nahitaez laga behar diote Udalari hirigintzako irabazizko aprobetxamenduaren %10i dagokion lurzorua. Beraz, hirigintza aprobetxamenduaren lagapenaren ordezkari aprobetxamendua monetarizatzen denean hala egitea komenigarri dela edo normalean egiten den modua ez dela komenigarri justifikatu behar da.
3. Hirigintza aprobetxamenduaren lagapenaren ordezkari aprobetxamendua monetarizatu den 4 hitzarmenetatik hirutan (ikus VII.1.2., 5. eta 6. atalak), diru sarrerak sortzapenen aurreko ekitaldietan kontabilizatu dira. Beraz, beharrezko finantzaketarik izan gabe egin dira gastuak.



VII.1.2 SR.2 BAKEA BIZITOKITARAKO EREMUA GARATZEKO HITZARMENA

2005eko ekainaren 27an, Udaltzako BAKEAko SR.2 bizitokitarako eremua birpartzelatzeko hitzarmena onartu zuen (eremu hori lurzoru urbanizagarri gisa sailkatu da Arau Subsidiarioetan). Hitzarmen hori Udalak eremuko ia lursail guztien (%97) jabe den enpresarekin egin zuen.

Hitzarmen horretan, Udalak Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala izapidetzeko betebeharra hartu zuen. Aldaketa horrek 118 etxebizitza egin ordez 306 egitea ahalbidetuko zuen:

ERAIKUNTZA TIPOLOGIA	Etxebizitza kopurua	
	ASak 2001	ALDAKETA EGITEN
Familia bakarrekoak	28	7
Atxikiak	30	6
Kolektibo libreak	60	251
Kolektibo tasatuak	-	42
GUZTIRA	118	306

Ordain gisa, enpresak 4.810 mila euro ordaindu behar zizkion Bakioko Udalari, bi alditan: 1.202 mila euro hitzarmena sinatzean; eta, gainerakoa, Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualaren behin betiko onarpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo 15 egunetan. Halaber, erabaki zuten etxebizitza tasatu bakoitzaren prezioa, gehienez ere, 228 mila euro izango zela.

Baldin Aldaketa Puntuala, azkenean, gauzatzen ez bazen, Udalak aurreratutako dirua itzuli beharko zuen. Horretarako, enpresari abala eman zion, eta enpresak bere gain hartu zituen abal horren gastuak.

Lan hau egin den egunean, hirigintza publikoa jasota dago, eta etxebizitzak eraikita daude, salbu prezio tasatuko etxebizitzak. Horiek egin behar ziren lursaila BIZKAILUR, SA sozietateari saldu zitzaion 2008ko urtarrilaren 18an, 2.928 mila euroan, BEZa barne.

Hona hemen hitzarmen horretan ikusi diren huts nagusiak:

1. 2002ko eta 2003ko ekitaldietan (hitzarmena sinatu aurreko ekitaldiak), Udalak 393 mila euroren zenbatekoa erregistratu zuen hitzarmenetik eratorritako sarrera gisa, justifikatu gabe. Beraz, aipatutako bi ekitaldietan beharrezko finantzaketa izan gabe egin dira gastuak. Kontraprestazioagatiko sarrera 2005eko ekitaldian erregistratu behar zen, hitzarmenean ezarritako xedapenekin bat. Udalak hirigintza aprobetxamendua monetarizatu izanaren ondorioz hitzarmen horretan lortu dituen sarrerak kontabilizatu ditu, baina 3. kapituluan (sarrerak) egin du hori, 6. kapituluan egin ordez.



2. Hitzarmena sinatu zuen enpresak lau zatitan egin zuen bigarren ordainketa, atzerapenarekin: itundutako eguna baino 68, 113, 230 eta 468 eguneko atzerapenez, hurrenez hurren. Udalak atzerapenari zegokion interesa eskatu behar zion zordunari. Horri esker, Udalak 64 mila euro gehiago jasoko zituen.
3. Hitzarmena sinatu eta gero, Udalbatzak ez zuen berretsi, aipatutako dokumentuko 5. atalean hitzartutakoarekin bat. Atal horretan ezarrita dagoenez, Udalbatzak onartutako berreste erabakiaren hitzez hitzezko ziurtagiria sartu behar da hitzarmenera.

VII.1.3 BDA-02 JARDUN UNITATEA GARATZEKO HITZARMENA

2005eko ekainaren 27an, Bakioko Udaleko Udalbatzak jardun unitate horretan hirigintza gauzatzeko helburuarekin lursail guztien jabe den enpresarekin egindako hitzarmena onartu zuen. Jardun unitate hori hiri lurzoru gisa dago sailkatuta.

Hitzarmen horretan, Bakioko Udalak Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala izapidetzeko betebeharra hartu zuen. Aldaketa horrek 5 etxebizitza egin ordez 34 egitea ahalbidetuko zuen.

ERAIKUNTZA TIPOLOGIA	Etxebizitza kopurua	
	ASak 2001	ALDAKETA EGITEN
Familia bakarrekoak	5	1
Bi familiakoak.....	-	1
Kolektibo libreak	-	32
GUZTIRA	5	34

Bestalde, enpresak alboko lursail batean aparkaleku publiko bat egiteko obrak gauzatu behar zituen (ikus VII.1.4), legez ordaindu beharreko hirigintza aprobetxamenduaren %10en ordainketa gisa.

2009. urtean, Bakioko Udalak aparkaleku publikoaren obrak jaso zituen. Udaleko teknikariek aldeko txostena egin zuten eta, beraz, hitzarmena guztiz betetzat jo zen.

Hona hemen hitzarmen horretan ikusi diren huts nagusiak:

1. Ez dizkigute helarazi, hitzarmena sinatu zen unean, aipatutako obren tasazio balioa ezarri zuten euskarri dokumentuak. Horrenbestez, ezin dugu esan egindako trukea egokia den ala ez. Obra jaso zen unean hartu zuten kontraprestazioaren balioa ere ezin izan dute justifikatu.
2. Hitzarmenean ezarritakoaren arabera, hirigintza aprobetxamenduaren %10 beste eremu batean aparkaleku publikoa egiteko obrak gauzatzerekin ordeztuko zen. Horrek APKLTB urratzen du. Izan ere, Lege horren 11.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, administrazioak publizitate eta lehia printzipioak betez esleitu behar ditu

obrak, eta Bakioko Udalak egin beharreko azpiegituren zuzeneko esleipendun egin du sustatzailea.

3. Bakioko Udalak ez du kontabilizatu hitzarmen horretako kontraprestazio izan den eragiketa. Beraz, aurrekontuan ez da jaso ez aparkalekua eraikitzeak eragindako gastua ez lortutako diru sarrera. Eragiketa hori erregistratzeak ala ez erregistratzeak ez du eraginik aurrekontu emaitzan, ez eta diruzaintzako geldikinean ere, baina, aurrekontu gordinaren printzipioa betetze aldera, sarrera bat 6.kapituluan erregistratu behar zen, hitzarmeneko monetarizazioak eragina; eta gastu bat 6. kapituluan, obraren kostuaren zenbatekoarena.

VII.1.4 BDB JARDUN UNITATEA GARATZEKO HITZARMENA

2005eko ekainaren 27an, Bakioko Udaleko Udaltzako jardun unitate horretan hirigintza gauzatzeko helburuarekin lursail guztien jabe den enpresarekin egindako hitzarmena onartu zuen. Jardun unitate hori hiri lurzoru gisa dago sailkatuta.

Hitzarmen horretan, Bakioko Udalak Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualean izapidetzeko betebeharra hartu zuen. Aldaketa horrek 8 etxebizitza egin ordez 26 egitea ahalbidetuko zuen.

EIRA KUNTZA TIPOLOGIA	Etxebizitza kopurua	
	ASak 2001	ALDAKETA EGITEN
Familia bakarrekak	8	-
Kolektibo libreak	-	26
GUZTIRA	8	26

Horren ordainetan, enpresak Udalari lursail handiagoa lagatzeko betebeharra hartu zuen (1.686,62 m² gehiago), lursail horretan ekipamendu publikoa egin zedin. Hortaz, Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualean, ekipamendu publikorako lursailaren azalera 908 m² izatetik 2.594,62 m² izatera pasatu zen, eta berdeguneak eta aparkaleku publikoa egingo ziren bertan.

Udalak hirigintza aprobetxamenduaren %10 ordaintzetik salbuetsi zuen enpresa, Udalak enpresak ekipamendu publikoa egiteko laga zion lurzoruaren balioa handiagoa zela jo baitzuen, eraikigarritasuna handitzeko Aldaketa Puntualean egin eta gero Udalari zegokion aprobetxamendua baino.

2009ko ekainaren 29an, Udalak hirigintza publikoaren obrak jaso zituen, eta hitzarmena betetzat jo zuten une horretan.

Hona hemen hitzarmen horretan ikusi diren huts nagusiak:

1. Ez dizkigute helarazi hitzarmen horretako kontraprestazioak egokiak izan diren ala ez egiaztatzeko beharrezko euskarri dokumentuak, ez baita egin unitateko hirigintza aprobetxamenduaren balioztatzerik Birpartzelazio Proiektuan. Horrenbestez, ezin izan dugu zehaztu Udalak lortutako emaitza ekonomikoa.



2. Udalak ez du inbentarioan erregistratu nahitaezko lagapen gisa jasotako lursaila (hitzarmenerako 281 mila euroan balioztatua).
3. Jardun unitate horretako hirigintza aldaketa 2006ko otsailaren 22an onartu zuen behin betiko Bizkaiko Foru Aldundiak. Aldaketa horretan 1.686,62 m²-ko azaleradun aparkaleku publikoa egingo zela ezarri zen, eta guztira 1.142,23 m²-ko eremua berdeguneak egiteko utzi zen. Azalera osoan aparkaleku publikoa egin da.

VII.1.5 ERRENTERIA SR.3 BIZITOKITARAKO EREMU URBANIZAGARRIA GARATZEKO HITZARMENA

2006ko abuztuaren 3an, Udalbatzak SR.3 Erreterria bizitokitarako eremuan hirigintza garatzeko hitzarmena onartu zuen. Udalak eremuaren %80 ingururen jabe zen enpresarekin egin zuen hitzarmena, eta eremu hori lurzoru urbanizagarri gisa sailkatu zen Arau Subsidiarioetan.

Hitzarmenean, Udalak Plan Partzialaren eta Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala izapidetzen jarraitzeko betebeharra hartu zuen. Aldaketa horrek eremuaren eraikigarritasuna gehituko zuen (guztira 424 etxebizitza, gehienez ere), honako eraikuntza tipologia honen arabera:

ERAIKUNTZA TIPOLOGIA	Etxebizitza kopurua	
	ASak 2001	ALDAKETA EGITEN
Kolektibo libreak	86	362
BAOE kolektiboak	12	18
Kolektibo tasatuak	-	44
GUZTIRA	98	424

Era berean, Udalak hitz eman zuen Birpartzelazio Proiektua gehienez ere hiru hileko epean onartuko zuela, jabetzaren ordezkari zen enpresak aurkeztuko zuen unetik.

Ordainetan, enpresak 3.000 mila euro ordaindu behar zizkion Udalari, bost epe berdinetan, eremua hiritartzeko prozesuaren garapenaren arabera. Udala eremu horretako 1.713 m²-ko lursail baten jabe zen, eta eremu horretan behe solairuko saltokiak eskuratzeko interesa zuen. Aipatutakoaz gain, Udalak legez zegozkion lursailen eta hirigintza aprobetxamenduen jabetza trukatu zion enpresari behar zituen behe solairuko saltokiekin. Lursailen balioa 180 euro/m²-tan ezarri zuten, eta behe solairuko saltokiena 1.000 euro/m²-tan, eta truketik sortuko zen aldea orekatzeko, enpresak 3.000 mila euro ordaindu behar zituen.

Bestalde, hitzarmenean, prezio tasatuko etxebizitzaren salmenta prezioak ezarri ziren: eraikuntza lizentziak emango ziren egunean babes ofizialeko etxebizitzetarako indarrean izango zen prezioa bider 1,7. Prezio hori kontsumo prezioen indizearen arabera aldatuko zen, etxebizitza eman arte. Udalak beretzat gorde zuen etxebizitza horien gaineko lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea, eta esleipendunak hautatzekoa.



Lan hau egin den egunean, behin betiko onartuta daude eremuko Plan Partziala eta Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala. Baina ez da argitaratu Plan Partzialeko hirigintza araudia, onarpenean egindako aldaketei buruz Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Uren Zuzendaritzak egin beharreko txostena noiz jasoko zain baitaude. Horrenbestez, ez da indarrean sartu. Eremu horretako Birpartzelazio Proiektua behin betiko onartzeke dago, eta eremuko Urbanizatze Proiektua ez da aurkeztu Udalean.

Hona hemen hitzarmen horretan ikusi diren huts nagusiak:

1. 2006an, Udalak 3. kapituluan kontabilizatu du (6. kapituluan kontabilizatu ordez, 235/2004 Foru Dekretuan xedatu bezala) aipatutako hitzarmenean hirigintza aprobetxamendua monetarizatzearen bidez lortutako sarrerren lehen epea: 600 mila euroren zenbatekoa. 2007ko eta 2009ko ekitaldietan, hitzarmenean ezarritako bigarren eta hirugarren epeak kontabilizatu ditu (600 mila euro, epe bakoitza), baina ez dira interesak sortu eta ez dira kobratu, epeak Birpartzelazio Proiektua behin betiko onartu zenean eta Jabetza Erregistroan jaso zirenean bukatu baitziren, hurrenez hurren. Lan hau egin den egunean behin betiko onartu gabe dago, eta ez da oraindik erregistratu. Ondorioz, bi ekitaldi horietan guztira 1.200 mila euroren gastuak egin dira, beharrezko finantzaketarik izan gabe.
2. Birpartzelazio Proiektua Udalak hirigintza arloan aholkularitza emateko kontraturiko enpresak idatzi zuen, Udalaren ekimenez, baina inolako prozedurarik gabe. Horrek esan nahi du proiektu hori zuzenean esleitu zela, administrazio publikoko kontratu guztiek bete behar dituzten publizitate eta lehia printzipioak bete gabe (APKLTBko 11.1 artikulua). Txosten hau egin den egunean, ez da jaso proiektu horri loturiko fakturarik ez ordainketarik; sinatutako hitzarmenean sustatzailearen erantzukizuna zen hori. Udaleko idazkariaren ziurtagiriaren arabera, proiektua idatzi zuen enpresak eremuaren kudeaketa aurreratuta zegoenean lanen faktura aurkezteko betebeharra hartu zuen.

VII.1.6 ELEXALDE SR.6 BIZITOKITARAKO EREMU URBANIZAGARRIA GARATZEKO HITZARMENA

2006ko irailaren 18an, Udalbatzak eremu horren %50en jabe zen enpresaren ordezkariarekin sinatu beharreko hitzarmena onartu zuen. Lurzoru hirtargarri gisa sailkatu zen.

Hitzarmen horretan, Udalak eremuko Plan Partzialaren eta Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala izapidetzen jarraitzeko betebeharra hartu zuen. Aldaketa horrek 48 etxebizitza egin ordez 126 egitea ahalbidetuko zuen, honako eraikuntza tipologia honen arabera:

ERAIKUNTZA TIPOLOGIA	Etxebizitza kopurua	
	ASak 2001	ALDAKETA EGITEN
Kolektibo libreak	32	94
BAOE kolektiboak	16	16
Kolektibo tasatuak	-	16
GUZTIRA	48	126



Era berean, Udalak hitz eman zuen Birpartzelatze Proiektua gehienez ere hiru hileko epean onartuko zuela, jabetzaren ordezkari zen enpresak aurkeztuko zuen unetik.

Udalak zegokion hirigintza aprobetxamenduaren %10 emango zion enpresari, alegia, partikularrek emandako lursailen %10, betiere enpresa eman beharreko lursailen jabe bazen edo, kasuan kasu, gainerako jabeen baimena bazuen udal aprobetxamenduaren %10 beretzat hartzeko, Berdinbanatzeko Proiektuan jasotakoaren arabera. Bestela, hitzarmen hori enpresa sinatzailearen jabetzako lurzorua proportzioaren gainean izango zen baliozko. Guztizko aprobetxamenduaren %10 1.500 mila euroan balioztatu zen, eta diru kopuru hori eremuko hirigintza garapenari loturiko bost epetan ordaindu behar zen.

Enpresak epe batzuen arabera eremuan hirigintza garapena egiteko eta hirigintza hori kudeatzeko betebeharra hartu zuen. Plan Partziala behin betiko onartu eta handik aurrera, hiru hileko epean, Birpartzelazio Proiektua idatzi behar zuen; eta, hurrengo hilabetearen barruan, Urbanizatze Proiektua. Proiektuak idaztearen eta hirigintzaren gastuak aurreratu behar zituen, eta gero, gastu horiek jabeei ordainaraziko zizkien.

Etxebizitza tasatuak enpresak eraiki behar zituen, eta etxebizitza horien prezioa eraikitzeke lizentzia eman zen unean babes ofizialeko etxebizitzek zuten gehieneko prezioa bider 1,7 izango zen.

Udalak bere gain hartu behar zuen prezio tasatuko etxebizitzaren esleipendunen hautaketa, eta berak izango zuen etxebizitza horiek lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea, etorkizuneko salerosketetan.

Eremu horretako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala behin betiko onartzen ez bazen, kontratua deuseztatuko zela hitzartu zuten. Hala gertatuz gero, Udalak aurreratutako lehen epeko zenbatekoa itzuli beharko zuen.

Eremu horretako Plan Partziala 2009ko otsailaren 11n sartu zen indarrean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzearekin. Lan hau egin den egunean, Birpartzelazio Proiektua eta Hirigintza Jarduneko Programa behin betiko onartuta daude. Urbanizatze Proiektuari hasierako onarpena eman zaio, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu da eta Uraren Euskal Agentziara (URA) bidali da, eta haren txostenaren zain daude, behin betiko onar dadin.

2009ko urriaren 1ean, enpresak eraikitzeke lizentzia eskatu zuen, prezio tasatuko 16 etxebizitzak eta babes ofizialeko 16 etxebizitzak egiteko.

Hona hemen hitzarmen horretan ikusi diren huts nagusiak:

1. Hitzarmenaren arabera, enpresak 1,5 milioi euroren kontraprestazioa eman behar zuen, 300 mila euroko bost epetan. Lehen bi epeak aztertutako aldiak iraungi dira, eta Udalak hitzartutako ordainketak jaso ditu, bata 191 eguneko atzerapenarekin, eta, bestea, 636 egunekoarekin. Udalak atzerapenari zegokion interesa eskatu behar zion zordunari. Horri esker, Udalak 21 mila euro gehiago jasoko zituen.
2. Udalak hirigintza aprobetxamendua monetarizatu izanaren ondorioz hitzarmen horretan lortu dituen sarreraren lehen epea (300 mila euro) kontabilizatu du, baina 3. kapituluan (sarrerak), 6. kapituluan egin ordez. 2007ko eta 2009ko ekitaldietan, hitzarmenean ezarritako bigarren eta hirugarren epeak kontabilizatu dira, baina ez da interesik sortu, Birpartzelazio Proiektua 2009an onartu baitzen (bigarren epea),



eta 2010ean jaso zen Jabetzaren Erregistroan (hirugarren epea). Hortaz, 300 mila euroren gastuak egin dira aipatutako ekitaldi bakoitzean, beharrezko finantzaketarik izan gabe. Lan hau egin den egunean, hirugarren epea kobratzeke dago.

3. Birpartzelazio eta Urbanizatze Proiektuak Udalak hirigintza arloan aholkularitza lana egiteko kontrataturiko enpresak idatzi zituen, Udalaren ekimenez, baina inolako prozedurarik gabe. Horrek esan nahi du proiektu horiek zuzenean esleitu zirela, administrazio publikoko kontratu guztiek bete behar dituzten publizitate eta lehia printzipioak bete gabe (APKLTBko 11.1 artikulua). Txosten hau egin den egunean, ez da jaso proiektu horiei loturiko fakturarik ez ordainketarik; sinatutako hitzarmenean sustatzailearen erantzukizuna ziren horiek. Udaleko idazkariaren ziurtagiriaren arabera, proiektua idatzi zuen enpresak eremuaren kudeaketa aurreratuta zegoenean lan horien fakturak aurkezteko betebeharra hartu zuen.



VIII. BARRIKAKO UDALA

Barrikako Udalak 1.487 biztanle ditu 2009ko abenduaren 31n. Beraz, 2/2006 Legeko 91. artikularekin bat, ez du berezko gaitasunik plan orokorrak eta haien aldaketak onartzeko; eskumen hori Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio.

Barrikako Udalaren Hirigintza Plangintzako Arau Subsidiarioak 1990eko ekainaren 28ko Foru Aginduaren bitartez onartu zituen Bizkaiko Foru Aldundiak, behin betiko. 2010eko uztailaren 15ean, Udalbatzak behin-behinean esleitu zuen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra 2/2006 Legera egokituta egiteko eta idazteko zerbitzu kontratua.

Udalak zuzenean kudeatzen du hirigintza. Hona hemen hirigintza arloan duen antolaketa egitura:

- Alkatea
- Idazkari-kontuhartzailea
- Hirigintzako Udal Informazio Batzordea
- Zerbitzu teknikoak, aparejadore batek eta arkitekto batek (lanaldi partzialez kontratatua) osatuak.

VIII.1 HITZARMENEN AZTERKETA, ETA AURKITUTAKO HUTSAK

VIII.1.1 AZTERTUTAKO HITZARMENETAKO HUTS KOMUNAK

1. Barrikako Udalak ez ditu erregistratu hiru hitzarmenetan jasotako lursailak, ez bere inbentarioan, ez ibilgetuan (ikus VIII.1.2, 4 eta 5 atalak).

VIII.1.2 LURZORUA DOAN LAGATZEKO HITZARMENA, EREMU HORRETAN G-ARTEPETA EREMURA SARTZEKO BIDEA EGIN DADIN

2006ko maiatzaren 24an, Barrikako Udaleko Udalbatzak hirigintza hitzarmena sinatu zuen partikular batekin, G-ARTEPETA eremurako sarbidea egiteko beharrezko lurra doan laga zezan.

Hitzarmenaren xedea 129,49 m²-ko lursaila doan lagatzea zen, BI-634 foru errepidetik aipatutako eremura sartzeko bidea egiteko.

Akats baten erruz, lursail hori aipatutako eremuan aurreko eraikuntza baten eraginpean zegoela ezarri zen Arau Subsidiarioetan, eta, beraz, ez zen sartu eremu horretako Konpentsazio Proiektuan. Proiektu hori 2000ko abenduaren 5ean onartu zen.

Ordainetan, Udalak, etorkizuneko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren barruan, akatsa zuzentzeko betebeharra hartu zuen; alegia, aipatutako lursaila eremuan sartuko zuen, eta eraikigarritasuna esleituko zion, gainerako lursailei bezala. Gainera, lagatuko zatiaren eraikigarritasuna mantenduko zion jatorri lursailean.

Aipatutako betebeharra betetzea ez zegoenez soilik Udalaren esku (Bizkaiko Foru Aldundiak baitu Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onartzeko eskumena), hitzarmeneko baldintza hori betetzen ez bazen, lagatuko zatiaren ordezkio diru ordaina ezarri zen



hitzarmenean bertan. Diru ordain horren zenbatekoa jakiteko, lagatako azalera eta lurzoru urbanizaezin arruntaren metro karratuaren balioa biderkatu beharko ziren.

Hitzarmen horretan ez da berariazko hutsik ikusi.

VIII.1.3 HITZARMENA BIZKAILUR KIDE BAKARREKO SOZIETATE ANONIMOAREKIN, TOKIKO BABESEKO 89 ETXEBIZITZA ERAIKITZEKO

2009ko ekainaren 9an, Barrikako Udalak onartu zuen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara zedila Udalaren eta Bizkailur kide bakarreko foru sozietate anonimoaren artean sinatu beharreko hirigintza hitzarmena, Barrika udalerrian tokiko babeseko 89 etxebizitzaren eraikuntza sustatze aldera.

Lau hau egin den egunean, hitzarmenaren gauzatzea ez dago onartuta.

Hitzarmen horretan ez da berariazko hutsik ikusi.

VIII.1.4 HITZARMENA PARTIKULARREKIN, BIRIBILGUNE BAT EGITEKO BEHARREZKO LURZORUA DOAN LAGA DEZATEN

2009ko urriaren 9an, Udaltzabak hitzarmen bat sinatzea onartu zuen, Barrikako Udalaririk lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dagoen 55,82 m²-ko eremua doan lagatzeko, bertan biribilgune bat eraiki zedin. Udaltzabak alkatea ahaldu zuen, hitzarmena sina zezan.

Ordainetan, lagatako lursaileko eraikuntza eskubideak lursailen jabeek dagozkie, bai gaur egun, bai etorkizunean.

Hitzarmen horretan ez da berariazko hutsik ikusi.

VIII.1.5 HITZARMENA ENPRESA BATEKIN, BIRIBILGUNE BAT EGITEKO BEHARREZKO LURZORUA DOAN LAGA DEZAN

2009ko urriaren 9an, Udaltzabak hitzarmen bat sinatzea onartu zuen, Barrikako Udalaririk 1.546,67 m²-ko lurzoru urbanizagarria doan lagatzeko, bertan biribilgune bat eraiki zedin. Udaltzabak alkatea ahaldu zuen, hitzarmena sina zezan.

Lursail horiek LEPOLA izeneko F eremuan daude, eta eremu horrek Plan Partziala du, 1996ko azaroaren 13an behin betiko onartua. Plangintza horretan eremuko eraikuntza parametroak, parametro tipologikoak eta eremuko garapenaren bideragarritasunaren eta eremuaren urbanizatzearen parametroak jaso dira.

Hitzarmenean, lursailen jabe zen enpresak uko egin zion edozein kalte ordaini edo lagatako lursailen gaineko eskubideri, salbu lagatako lursailari zegozkion eraikuntza eskubideei. Eskubide horiek enpresarenak izango dira, bai gaur egun, bai etorkizunean.

Gainera, enpresaren interesekoa zenez indarrean zen Plangintzaren Aldaketa Puntual bat aurkeztea eta izapidetzea (aldaketa horretan jasoko lirateke Barrikako Hiri Antolamenduko Plangintza Orokorraren Aurrerapenean argitaratutako parametroak), Udalak bere jardun eremuan izapidetzeko betebeharra hartu zuen. Aldaketa onartuko ez balitz, hitzarmena baliogabetutzat joko litzateke.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Hitzarmen horretan ez da berariazko hutsik ikusi.



IX. GETXOKO UDALA

Getxoko Udalak 80.277 biztanle ditu 2009ko abenduaren 31n. Beraz, 2/2006 Legeko 91. artikularekin bat, plan orokorrak eta haien aldaketak behin betiko onartzeko gaitasuna du.

2000ko urtarrilaren 18an, Bizkaiko Foru Aldundiak Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onartzea erabaki zuen. Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak ez du iraupen mugarik deboran. Hala ere, plan horretako 1.2.1 artikularen arabera, zortzi urteko epea igarotzen denean aztertu behar da. Era berean, plana aztertu behar da baldin Getxoko udalerrian eragina izango duen goragoko mailako plangintzako dokumenturen bat onartzen bada.

2006ko irailaren 26an, Bilbo Metropolitarrako Lurraldeko Plan Partziala behin betiko onartu zen. 2007ko urriaren 2an, Tokiko Gobernu Batzarrak Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aztertzeko espedientea hasia erabaki zuen, eta 2011ko uztailaren 26an esleitu da.

Udalak zuzenean kudeatzen du hirigintza. Hirigintzako Zinegotzigoko Zerbitzu Teknikoen Arloaren (Obrak eta Zerbitzuak) barruan dago Hirigintza eta Arkitektura atala, eta honako hauek osatzen dute:

- 2 arkitekto
- 5 arkitekto tekniko
- 2 abokatu
- 6 laguntzaile

IX.1 HITZARMENEN AZTERKETA, ETA AURKITUTAKO HUTSAK

IX.1.1 AZTERTUTAKO HITZARMENETAKO HUTS KOMUNAK

1. Atzerapen luzea izan da Tokiko Gobernu Batzarrak honako hitzarmen hauek onartu zituenetik sinatu diren arte:
 - a. ITURRIBARRI II 24.2 jardun unitatea hitzarmen batzarraren sistemaz kudeatzea arautzen duen hitzarmena: 134 egun (ikus IX.1.2 atala).
 - b. SARRIKOBASO 31.1 jardun unitatean hitzarmen batzarraren sistema ezartzeko hitzarmena: 161 egun (ikus IX.1.3 atala).
 - c. Hirigintza hitzarmena, ORMAZA BEHEKOA 42.2 jardun unitateko Lankidetzako Administrazio Elkartearekin: 246 egun (ikus IX.1.4 atala).
 - d. Getxoko Santa Eugenia kaleko 14. eta 16. zenbakietan udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko zehaztapenak egikaritzeko hitzarmena: 219 egun (ikus IX.1.5 atala).

Atzerapen horien ondorioz, zenbait kasutan, onartutako hitzarmenean jaso ziren inguruabarrak ez dira mantendu hitzarmena sinatu denean; kasu batean, bi dokumentuetako testua ez zetorren bat.



2. Betebehar ekonomikoren bat dakarten hitzarmenetatik bat ere ez du fiskalizatu Udaleko Kontu Hartzaitetzak, nahiz eta hala egin behar duela xedatzen duen 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 214. artikulua (ikus IX.1.3 eta 6 atalak).
3. Aztertutako hitzarmenetan ez da egin hitzarmenak interes orokorrerako onuragarri izango direla justifikatzen duen arrazoiketa dokumentaturik, salbu eremua hitzarmen batzarraren sistemaz kudeatzeko egin ziren bi hitzarmenetan (ikus IX.1.2 eta 3 atalak), 2/2006 Legeko 160.2 artikulua hala egitera behartzen baitu.

IX.1.2 ITURRIBARRI II 24.2 JARDUN UNITATEA HITZARMEN BATZARRAREN SISTEMAZ KUDEATZEA ARAUTZEN DUEN HITZARMENA

2008ko uztailaren 22an, Getxoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak ITURRIBARRI II 24.2 jardun eremuaren jabetzaren %84,4ren ordezkariekin sinatu beharreko hitzarmena - eremu hori hitzarmen batzarraren sistemaz garatzekoa- onartu zuen, 2/2006 Legeko 160 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hitzarmen horretan, jabeek honako betebehar hauek hartu zituzten:

- Hitzarmen Batzarra eratzea, hitzarmena onartzen denetik hilabeteko epean.
- Birpartzelazio Proiektua aurkeztea, Hitzarmen Batzarra eratzen denetik sei hileko epean.
- Nahitaez eta doan laga beharreko lursail eta ondasun guztiak ematea.
- Hirigintza aprobetxamenduaren %10i dagokion lurzorua Getxoko Udalari esleitzea, eraikigarritasun haztatuaren arabera.
- Hirigintza karga guztiak beren gain hartzea.
- Hitzarmena beteko dela bermatzea, hirigintza kargen %7ren zenbatekoaren banku abala aurkeztearen bitartez, Birpartzelazio Proiektua onartu aurretik.

Udalak, bestalde, aurkeztutako dokumentuak -zuzenbidearekin bat datozenak- onartu behar lituzke, legez ezarritako epeetan. Horrez gain, hitzarmena argitaratu behar du, eta dokumentu horrek eragingo dien guztiei jakinarazi behar die. Udalak epe horiek ez beteko ez balitu, legezkotzat joko litzateke jabeek jardun sistema ez onartzea.

2009ko uztailaren 22an, Hitzarmen Batzarrak Birpartzelazio Proiektua onartu zuen, eta 2009ko irailaren 30ean argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Lan hau egin den egunean, Udalak oraindik ez dio behin betiko onarpena eman.

Hitzarmen horretan honako huts hauek aurkitu dira:

1. 2/2006 Legean eskatzen denaren arabera, hitzarmena osorik argitaratu behar da hasierako onarpena eman eta gero, eta behin betiko onartu baino lehen. Horrez gain, 7. xedapen gehigarriko 2. atalean jasotako publizitate eta gardentasun printzipioak bete behar ditu. Hitzarmen honetan, baina, ez da hori bete, hitzarmena onartzeko erabakia baino ez baita argitaratu.
2. Ez da aurkeztu hirigintza kargen %7ko banku abala, hitzarmena beteko dela ziurtatzeko berme gisa, nahiz eta hitzarmena izenpetzean egin behar dela xedatzen duen



2/2006 Legeko 160.6 artikulua, 2008ko abenduan hain zuzen ere. Abala 2011ko maiatza eta azaroa bitartean eman da.

3. Sustatzaileek, Hirigintza Jarduneko Programa aurkeztearekin batera, 2007ko azaroan, 2/2006 Legeko 158. artikuluan agindutakoarekin bat, urbanizatzeko aurrekontuaren %1eko abala eman behar zuten. 2010eko urriaren 28an, Udalak abala eskatu zion Hitzarmen Batzarrari. Abal hau 2011ko maiatza eta azaroa bitartean eman da.

IX.1.3 HITZARMEN BATZARRAREN SISTEMA EZARTZEKO HITZARMENA, SARRIKOBASO 31.1 JARDUN UNITATERAKO

2008ko ekainaren 24an, Getxoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak SARRIKOBASO 31.1 jardun eremuaren jabetzaren %77,2ren ordezkariekin sinatu beharreko hitzarmena - eremu hori hitzarmen batzarraren sistemaz garatzeko- onartu zuen, 2/2006 Legeko 160 artikuluan xedatutakoaren arabera. Eremu horretan, Udalak bi lursail zituen, eraikitze eskubidearekin, desjabetze bidez eskuratuak.

Hitzarmen horretan, jabeek honako betebeharrak hartu zituzten:

- Urbanizatzeko aurrekontuaren %7ri zegozkion abalak ematea, 15 eguneko epean, hitzarmena behin betiko onartu eta gero.
- Hitzarmen Batzarra eratzea, eta Batzar horren bitartez, birpartzelazio dokumentua egitea. Ezarritako legezko prozedura betetzea, hitzarmenean adierazitako epean barruan.
- Nahitaez laga beharreko lursailak eta ondasunak ematea.
- Udalaren kontrolpeko hirigintza karga guztiak, eta hirigintzaren kontratazioa, egikaritzea eta zuzendaritza beren gain hartzea.
- Urbanizatzeko obrak egikaritzea eta Udalari eskaintzea, jaso ditzan.
- Lehentasunez babes ofizialeko etxebizitzetan %10 Udalari lagatzea.
- Egoki denean, jabeek kalte ordaina ematea, 348,80 eurona m²-ko, edo 49,67 eurona m²-ko, lurzoruaren barruan hirigintza sartu den ala ez, horren arabera.

Udalak, bere aldetik, 4.173 mila euro ordainduko dizkie jabeek, unitateko aprobetxamendu eskasiaren balioztatze gisa, horren balioa askoz txikiagoa delako banaketa alorreko eredu aprobetxamenduaren balioa baino (eremuko batez besteko hirigintza eraikigarritasuna, 2/2006 Legean ezarri bezala).

Birpartzelazio Proiektuari 2010eko otsailaren 23an eman zion Hitzarmen Batzarrak hasierako onarpena. Alegazio bat egin zen, eta horrek aldaketak eragin zituen azalera batzuetan, bai eta jabeentzako kalte ordainetan ere.

Hitzarmen horretan honako huts hauek aurkitu dira:

1. 2/2006 Legean eskatzen denaren arabera, hitzarmena osorik argitaratu behar da hasierako onarpena eman eta gero, eta behin betiko onartu baino lehen. Horrez gain, 7. xedapen gehigarriko 2. atalean jasotako publikitate eta gardentasun printzipioak bete



behar ditu. Hitzarmen honetan, baina, ez da hori bete, hitzarmena onartzeko erabakia baino ez baita argitaratu.

2. Jardun sistema hautatzeko orduan, Udalak aintzat hartu behar ditu 2/2006 Legeko 159.3 artikuluan adierazitako irizpideak. Hala ere, espedientean ez da sartu irizpide horiek aintzat hartu dituztela erakusten duen txostenik. 160. artikulua Udalari ahalbidetzen dio hitzarmen batzarraren sistema aukeratzea, baldin jabeen %50ek proposatzen badute. Dena den, Udalak Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmen batean eta bestelako jabetzaren dokumentu eta Hitzarmen Batzarraren agiri batzuetan adierazi zuen lursaila eskuratzeko asmoa zuela, eta asmo horiek ikusita, ez dirudi sistema hori denik egokiena. Ez zen horri buruzko txostenik egin.
3. Hitzarmenean eskatu zen %7ren abala eratu behar zela 15 eguneko epean, hitzarmena onartu eta handik aurrera, 2/2006 Legearen 6. puntuko 160. artikuluekin bat. Abal hori hitzarmena sinatu zenean aurkeztu behar zen, hitzarmena beteko dela bermatzen baitu abalak. Lan hau egin den egunean, abal hori ez da aurkeztu, oraindik.
4. Hitzarmenean betebeharrak ekonomikoak jaso ziren baina, hala ere, kontu-hartzaileak ez zuen haren fiskalizazioa egin Birpartzelazio Proiektua aurkeztu arte. Onespena 2011ko maiatzaren 24an eman zion.
5. 2008ko azaroaren 4an, hitzarmena sinatu baino hilabete lehenago, Udalak jardun unitateko lursailletako bat haren jabetza kendu zitzaion jabeari itzultzeko akta sinatu zuen. Sinatu zen hitzarmenean ez da jaso aldaketa hori. Horrenbestez, hitzarmenean ageri den Udalaren jabetza ez dator bat hitzarmena sinatu zen uneko benetako egoerarekin.
6. Hitzarmen Batzarra hitzarmena sinatu eta handik 3,5 hilera eratu zen, nahiz eta 2/2006 Legeko 161.1 artikuluan hilabeteko epea ezarri den, horretarako. Hitzarmenean ezarritakoaren arabera, Birpartzelazio Proiektuari hasierako onarpena eman behar zitzaion hiru hileko epean, Hitzarmen Batzarrera jabe berriak atxikitze epea bukatu eta handik aurrera. Onarpen hori 5,5 hileko atzerapenarekin eman zen.
7. Udalak emandako lursailak ez daude Udalaren izenean erregistratuta, eta ez dira Lurzoruaren Udal Ondarean ere sartu.

IX.1.4 ARRIGUNAGA ALORREKO 29.1 JARDUN UNITATEA URBANIZATZEARI BURUZKO HITZARMENA

2005eko ekainaren 28an, Tokiko Gobernu Batzarrak Urbanizatzeko Proiektuan sartutako obrak egikaritzeko ARRIGUNAGA alorreko 29.1 jardun eremuaren jabeekin sinatu beharreko hitzarmena onartu zuen.

Hitzarmen horretan, jabeek honako erabaki hauek hartu zituzten:

- Onartutako urbanizatzeko proiektuari dagozkion obrak egikaritzea, dela bi enpresa zehatzen bitartez, dela beren kabuz edo hirugarrenen bitartez.
- Obren zuzendari fakultatiboa nor izango den jakinaraztea Udalari, obrak hasi aurretik.

Udalak 2010eko uztailean jaso zituen urbanizatze obrak.

Hitzarmen horretan honako huts hauek aurkitu dira:

1. Jardun unitate horretarako ezarri den jarduteko sistema lankidetzazkoa da. 1/1992 Legegintzako Errege Dekretuko 162. artikulua aukera ematen du urbanizatze obrak egikaritzean jabeen administrazio elkarteekin lankidetzaz egiteko. Dena den, lankidetzaz ez da bideratu elkarte baten bidez, lurzoruaren jabe ziren enpresen bitartez baizik.
2. Hitzarmenean ez da lankidetzaz hitzarmena jaso, obrak jabeak edo hark erabakiko duenak egikaritzea dituela ezarri da. Horrenbestez, ez da bete APKLTBko 11.1 artikuluan xedatutakoa, administrazioek, obrak egiteko, publizitate eta lehia printzipioak bete behar dituztela ezarri baita artikulua horretan. Oraingo honetan, Udalak egin beharreko azpiegituren esleipendun zuzen egin du sustatzailea.
3. Ez dakigu zein egunetan hasi ziren obrak, ezin izan baitugu lortu zuinketaren egiaztaketa akta.

IX.1.5 HITZARMENA, ORMAZA BEHEKOA 42.2 JU-KO LANKIDETZAKO ADMINISTRAZIO ELKARTEAREKIN

2004ko maiatzaren 25ean, lankidetzaz sistemaz urbanizatze obrak egikaritzearren ORMAZA BEHEKOA alorreko 42.2 jardun eremuaren jabeekin sinatu beharreko hitzarmena onartu zuen Tokiko Gobernu Batzarrak.

2005eko urtarrilaren 26an izenpetu zen hitzarmena. Hitzarmen horren helburua zen jabeek sortutako Lankidetzako Administrazio Elkartearen subrogatzea, Udalaren eskuetara, urbanizatze obra hautatu, kontratatu, egikaritu eta zuzentzean. Horretarako, elkarteak Udalari aurkeztu behar zizkion kontsultatutako enpresak eta esleipenduna hautatzeari buruzko dokumentuak, kontratuarekin batera. Administrazioak aukera du, 10 eguneko epean, bere onespena emateko edo beharrezko deritzen aldaketak zehazteko.

Hitzarmen horretan honako huts hauek aurkitu dira:

1. Hitzarmena onartu zenean, urbanizatze obrak jadanik hasiak ziren. Zuinketa egiaztatze akta 2004ko otsailaren 9koa da. Elkartearen aktan jasota dagoenez, 2004ko martxoaren 29an 106 mila euro zeuden egiaztatuta; eta 2004ko uztailean jabeetako batek adierazi zuen lehen urbanizatzea eginga zegoela dagoeneko. Jarduteko modu horrek ez du betetzen hitzarmenean zehaztutakoa. Gainera, jarduteko modu horrek berekin dakar sustatzaileak bere gain hartzea obra batzuen egikaritzea, nahiz eta obra horiek lehiaketa publikora atera beharrekoak ziren; hartara, ez zuen bete APKLTBko 11.1 artikuluan xedatutakoa.
2. Hirigintzako zinegotziak izenpetu zuen hitzarmena, nahiz eta onartzeko erabakian hori alkateak egin behar zuela zehaztuta egon.
3. Obrak kontratatu eta jasotzean izandako jardunbidea ikusita, aukeratutako kudeaketa sistema -lankidetzazkoa- ez dirudi egokiena izan denik.

IX.1.6 GETXOKO SANTA EUGENIA KALEKO 14. ETA 16. ZENBAKIETAN UDALERRIKO HAPO-KO ZEHAZTAPENAK EGIKARITZEKO HITZARMENA

2006ko ekainaren 26an, Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zuen sustatzaile batekin hitzarmen bat izenpetzea, Santa Eugenia de Romo kaleko 14. eta 16. zenbakietako eraikinak eraistearen ondorioz sortuko ziren hirigintza jardun batzuk arautzearren.

Jardun hau egin behar zen: etxebizitzetako bi eraikin eraitsi, eta bi lursailtako batean eraikin berria eraiki, beste eraikina oinezkoentzako kaletzat utzita. Udala etxebizitza baten jabe da eraistekoa den eraikinetako batean; sustatzailea da besteen jabea.

Sustatzaileak betebeharrak hauek ditu:

- Bi eraikinak eraistea.
- Lehendik zegoen ostalaritza jarduera, eraikin berrian kokatzea.

Udalak betebeharrak hauek ditu:

- Santa Eugenia kaleko 16. zenbakiko eraikuntza eskubideak kale horretako 14. zenbakira aldatzea.
- Hirigintzako Aprobetxamenduen Transferentzien Erregistroan erregistratzea, titularrak eta kontsumitu gabeko aprobetxamendu unitateak identifikatuta.
- Eraikuntza baimena ematea, aurkeztutako dokumentuak indarrean diren arauekin bat datozela egiaztatuta eta gero.

Hitzarmen horretan honako huts hauek aurkitu dira:

1. Ez da Udalak entregatu eta jaso dituen ondasun eta eskubideen balioztapen edo tasaziorik egin, kontuan hartuta Udalak bazuela etxebizitza bat eraitsitako eraikinetako batean. Jabeen jabetza eskubidean sar daitekeen aprobetxamenduaren balioztapen bat besterik ez dago, sustatzaileek izenpetua. Balioztapen horretan, osagai nagusia, salmenta prezioa, ez dago oinarritua.
2. Udalaren jabetzako etxebizitza 2011ko urriaren 27an kendu da inbentariotik.

X. OIARTZUNGO UDALA

Oinartzungo Udalak 9.947 biztanle ditu 2009ko abenduaren 31n. Beraz, 2/2006 Legeko 91. artikularekin bat, plan orokorrak eta haien aldaketak behin betiko onartzeko gaitasuna du.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1991ko ekainean onartu zituen Oiartzungo Udal Plangintzako Arau Subsidiarioak. Arau horiek zenbait alor etenda utzi zituzten, eta geroago onartu ziren, 1996tik 2006ra bitartean. Arau horiek berrikusteko lanak 2005ean hasi ziren, eta Udalbatzak behin betiko onartu zituen 2007ko apirilaren 19an.

Hala ere, 2007ko uztailaren 10ean, Udalbatzak aurreko erabakia baliogabetzat deklaratu zuen, eta etenda utzi zituen arau subsidiarioak. Erabaki hori, berriz, baliogabetzat deklaratu zuen EAEJANaren 2009ko ekainaren 17ko epaiak. Udalak kasazio errekurtsua aurkeztu du epai horren aurka.

2008ko otsailaren 18an, Udalbatzak behin betiko onartu zuen arau subsidiarioen berrikustea, hainbat alor etenda utzita; horiek 2009ko urriaren 28an onartu ziren behin betiko.

2008ko otsailaren 18ko erabakiari ere hainbat errekurtsu jarri zitzaizkion, EAEJANaren 2009ko urriaren 15eko epaiak eta 2010eko martxoaren 31ko epaiak baliogabetzat deklaratu zuten erabaki hura. Epai horien aurka kasazio errekurtsua aurkeztu zion Udalak Auzitegi Gorenari.

2009ko urriaren 28ko erabakiaren aurka ere errekurtsua aurkeztu zaio EAEJANari, eta gure lan hau egitean oraindik ez da epairik eman.

Udalak zuzenean kudeatzen du hirigintza, eta egitura hau du:

- Udal arkitekto bat
- Lanaldi zati bateko arkitekto laguntzaile bat.
- Bi aparejadore.
- Mendietako eta ingurumeneko teknikari bat
- 4 laguntzaile

X.1 HITZARMENEN AZTERKETA, ETA AURKITUTAKO HUTSAK

X.1.1 AZTERTUTAKO HITZARMENETAKO HUTS KOMUNAK

1. Hirigintzako ekintzak sortutako plusbalioetan komunitateak duen partaidetza zenbat den zehaztearren Udalak 14 hitzarmenetan egindako balioztapenetan (ikus X.1, 2, 3, 5, 6, 7, 8 eta 9 idatz zatiak), erabilitako salmenta eta eraikuntza balioak ez daude oinarrituak, aniz eta aztertutako kasu guztietan zenbatekoak aski homogeenak diren.
2. Aztertutako 17 espedienteetako batean ere ez dugu aurkitu izenpetzera zihoazen hitzarmenari buruz Udaleko Kontu Hartzaitzak txostena egin izanaren frogarik. Baina, Legegintzako 2/2004 Errege Dekretuko (Toki Ogasunak arautzeko Legearen testu bategina onartzen duena) 214. artikularekin bat, Udalari ekonomia edukia duten eskubide edo betebeharrak dakarkioten egintza oren kontu hartu behar da.



3. Izenpetutako hitzarmenetatik biren aurka (ikus X.1.5 idatz zatia) errekursoak aurkeztu dira Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegian. Epai zain daude lan hau egin dugun egunean; beraz, ez dakigu horien ebazpenak zer eragin izan ditzaketen Udalak egindako jardunen gainean.
4. Aztertutako hitzarmenetan -Eusko Jaurlaritzarekin Arragua 1A eta 1B eremuan egindako bietan izan ezik (ikus X.1.5)- ez da egin hitzarmenak interes orokorrerako onuragarri izango direla justifikatzen duen arrazoiketa dokumentaturik. Ez eta eremua hitzarmen batzarraren sistemaz kudeatzeko egin ziren bost hitzarmenetan ere (ikus X.1.3, 4, 5, 6 eta 7 atalak); baina hor beharrik ez zen, 2/2006 Legeko 160.2 artikulua hala egitera behartzen baitu.
5. Legez Udalari dagokion hirigintza aprobetxamenduaren behin betiko balioztatzea Birpartzelazio Proiektutik ondorioztatzen dena da. Beraz, hirigintza aprobetxamenduaren lagapena aprobetxamendua monetarizatzeaz ordezkatu den sei hitzarmenetan behin-behinekotasunaren klausula bana izan beharko litzateke, aprobetxamenduaren %10en balioa ezin delako izan Proiektu horretatik aterako dena baino txikiagoa.

X.1.2 GURUTZEKO BIRIBILGUNEA GARATZEKO HITZARMENAK (4)

2006ko abenduaren 4an behin-behinekoz onartutako arau subsidiarioek hirigintza antolamenduko proposamen bat egiten dute Gurutze auzorako, zirkulazio eta mugikortasun arazoei irtenbidea eman nahi diona ondorengo hauek eraikiz: biribilgune bat, auzoko hainbat tokitarako sarbideak, eta bidegorri sarea. Gainera, aparkaleku berriak eraikitzea eta aparkaleku baten titulartasuna aldatzea plazaratu da. Antolamendua ez da aldatu 2008ko arau subsidiarioak onartzearekin. Biribilgune hori eraikitzeko, lau hitzarmen izenpetu ziren lurren jabeekin.

2006ko urriaren 26an, Udalbatzak behin betiko onartu zuen Gurutzeko biribilgunea urbanizatzeako proiektua, eta 2008ko abenduaren 28an obrak esleitu zituen.

2006ko azaroan hasiera batean onartu ziren hiru hitzarmen. Egitekoa zen biribilgunearekin mugakide ziren lurren jabeekiko hitzarmenak ziren, eta 2007ko otsailaren 12an izenpetu ziren. Hala ere, laugarren jabe batekiko hitzarmena ez zen hasiera batean onartu 2007ko apirilaren 2 arte, eta ez zen 2007ko maiatzaren 31 arte izenpetu.

Hona hemen hitzarmen horietan ikusi diren huts nagusiak:

1. Lau hitzarmenetatik hirutan, jabeek Udalari lurak lagatzea jasotzen da; eta lau hitzarmenetatik bitan, Udalak jabeei lurak lagatzea. Lursail horiek ez daude balioztatuta, haien azalera zenbat den ez dago zehaztuta, eta haien jabetza ez dago justifikatuta jabetzaren erregistroko egiaztagiriz edo eskritura publikoz. Orobat, Udalaren inbentarioan ez daude jasota hartutako eta entregatutako lursailen sarrerak eta irteerak.
2. Hitzarmen horietako batean proposatzen da baserri zahar bat eraistea, haren tokian lau etxebizitza eraisteko aukera utzita. Adierazten da aurreko aprobetxamenduak



berriekin eta lurra lagatzearekin konpentsatzen direla, eta ez dago horri buruzko aditu balioztapenik.

3. Lau hitzarmen horietatik hiruren hasierako onarpenean eta argitalpenean ez dira hitzarmenen eranskinak (egin beharreko jarduna deskribatzeko planoak) agertu.

X.1.3 LANBARREN LAN-3 HANDITZEAREN EREMUARI LOTURIKO HITZARMENAK (2)

2007ko urtarrilaren 31n, Udaltzak behin betiko onartu zuen Lanbarrengo industrialdea handitzeko hitzarmena, xede hau izanik: orain kokatuta dauden hiri ingurunearekin edo udalerrian aurreikusitako hiri garapenarekin bateraezinak diren industriak lur horietara aldatzea. Hitzarmen hori zuzenean erlazionatuta dago sustatzaile berak Ugaldetxoko eremuaren garapenerako izenpetutako hitzarmenarekin (ikus X.1.7).

Jabetza oso-osoaren jabe diren enpresekin izenpetutako hitzarmen horretan, Udalak bere gain hartzen du hitzarmenak eragindako eremuari (118.100 m²) dagokionez Udalerriko arau subsidiarioak aldatzea. Eremuaren mugak, sailkapena eta kalifikazioa ezarriko dira, lur ez urbanizagarri izatetik industria erabilerako lur urbanizagarri izatera igaroko da, eta kudeaketa sistematzat hitzarmen batzarrarena ezarriko da.

Jabeek, berriz, betebeharrak hartu zituzten:

- Eremua urbanizatzea, Udalak onartutako urbanizatze proiektuari jarraituz.
- Udaldetxoren garapenari eragiten dioten lau enpresei kalte-ordainak ematea eta industriei egoitza berria ematea bere gain hartzea. Lau enpresei pabiloia eta lursaila eman beharko dizkie, une horretan dituzten eraikigarritasun eta okupazio parametro berdinekin.
- Udalari lagatzea hirigintza aprobetxamenduaren %10, eta handitzearekin mugakide diren bere jabetzako lurren 30.480 m²
- Berek ordainduta eta beren ardurapean, beharrezko hirigintza dokumentuak egitea.
- Hitzarmen Batzarra eratzea.

2008ko otsailaren 18an, Udaltzak erabaki zuen hitzarmen hori etetea, 2007an onartutako arau subsidiarioekin hori bera egin eta gero. Etete erabaki hori baliogabetzat jo zuen EAEJANaren 2009ko urriaren 15eko 642/09 epaiak. Epai horren aurkako kasazio errekurtsioa aurkeztu du Udalak.

Hona hemen hitzarmen horretan ikusi diren huts nagusiak:

1. Egoitza berria emateko eta aprobetxamendua lagatzeko betebeharrak bat ere ez dago balioztatuta, dela dirutan, dela azalera. Gainera, espedientean ez dago enpresen lekualdatze asmoari buruzko informaziorik. Enpresetako batek hitzarmenaren aurkako alegazioa aurkeztu zuen, lekualdatzea fisikoki eta ekonomikoki ezinezkoa zaiola eta.
2. Udaltzaren erabakian hitzarmena izenpetzeko 15 eguneko epea eman zen arren, izenpetzea bi hilabete atzeratu zen.



3. Hasiera batean onartutako hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzean, eranskinetako bat eta beste eranskin baten zati bat ez ziren agertu.
4. Hitzarmenaren espedientean ez daude adierazita jabeen ordezkarietat izenpetzen duten pertsonetako baten ahalordeak.

2009ko ekainaren 30ean Udalbatzak behin betiko onartu zuen hitzarmen berria, aurrekoa ordeztu zuena. Hitzarmen horretan Udalak ezartzen du Lanbarren industrialdea 83.300 m² handituko dela, udalerrian kokaturiko enpresak lekualdatzeko soilik, baina zein enpresa diren zehaztu gabe. Era berean, bere gain hartzen du arau subsidiarioen berrikuspenean eremu hori sartzeari, industria erabilerako lur urbanizagarritzat, eta horren kudeaketa lankidetzaz sistemaz eramango dela.

Jabeek beren gain hartzen dituzte aurreko hitzarmeneko betebeharrak, urbanizatzeari, azterlanei eta eremua kudeatzeko beharrezko hirigintza dokumentuei dagokienez. Orobat, beren gain hartzen dute urbanizatzeari gauzatzea.

Udalak, aprobetxamenduaren lagapentzat, 5.000 m² eraiki jasoko ditu, gehi solairuarterkoetatik dagozkionak eta 1.500 m² eraiki erosteko aukera, metro koadroa 250 euroan ordainduta. Gainera, dohainik jasoko ditu industrialdearekin mugakide diren lursailak, sustatzaileen jabetzakoak; horien sailkapena ez da aldatuko.

Hona hemen bigarren hitzarmen horretan ikusi diren huts nagusiak:

1. Lankidetzaz sistemak, 2/2006 Legeko 173. artikuluari jarraituz, ezaugarritzat du Administrazioa arduratzen dela urbanizatzeari egikaritzeaz, eta hitzarmen honetan jabeek beren gain hartu dute urbanizatzeari obrak egikaritzea. Egikaritzea jabeek egitea, hitzarmen batzarraren sistemaren ezaugarri da. Beraz, Udalak arduratu beharko zukeen egikaritzeaz, edo jardun sistema aldatzea onartu beharko zukeen, 2/2006 Legeko 165. artikuluari jarraituz.
2. Hitzarmenean kronograma bat aipatzen da, hirigintzako dokumentuak onartzeko epeak jasotzen dituenak, eta eranskintzat agertu beharko litzateke. Dokumentu hori ez da ageri hitzarmenean, ez eta aztertutako espedientean ere.
3. Hirigintzako esku-hartzeko alorraren mugakide diren lurak (9.465 m²) kargetatik libre lagatzea, arau subsidiarioak onartu eta hiru hilabetera egin beharko zatekeen, hau da, 2010eko urtarrilean. Lan hau egin den egunean, oraindik gauzatzeke dago.
4. Hitzarmenaren espedientean ez daude adierazita jabeen ordezkarietat izenpetzen duten pertsonetako baten ahalordeak.

2010eko uztailaren 29an hasiera batean onartu zen jabeek aurkeztutako alorreko plana. Hala ere, udal arkitektoak egindako zehaztapen batzuen ondorioz, Plan Partziala behin-betiko 2011ko otsailaren 23an onetsi zen.



X.1.4 ITURRIOTZEKO 28.1 ALORRA KUDEATZEKO HITZARMENA

2006ko abenduaren 28an Udalbatzak behin betiko onartu zuen hirigintzako hitzarmena, jabetzaren %81,04rekin izenpetua. Helburutzat du 10.011 m²-ko eremua birpartzelatzea eta urbanizatzea, hor 52 etxebizitza eraikitzeko (erdiak, babes ofizialekoak). Alorra kudeatzeko, hitzarmen batzarraren sistema ezarri da.

Sustatzaileak betebeharrak hauek ditu:

- Hitzarmen Batzarra eratzea, eta hilabeteko epean Birpartzelazio Proiektua aurkeztea.
- Urbanizatze kargak beren gain hartzea, eta Udalaren alde abal bat eratzea, karga horien %7rena, hitzarmena irmoa izan dadinean.
- Nahitaez laga beharreko lursailak eta ondasunak ematea.

2009ko azaroaren 10ean Tokiko Gobernu Batzarrak alorra urbanizatzeko obrak jasotzeko akta onartu zuen.

Hona hemen hitzarmen horretan ikusi diren huts nagusiak:

1. Hitzarmen Batzarra, 2007ko urtarrilaren 24an eratua, Hirigintzako Erakunde Laguntzaileen Erregistroan erregistratu zuten 2007ko azaroaren 26an. Beraz, ez zuen nortasun juridikorik izan erregistratze egun horretaraino, 3288/1978 Errege Dekretuko 26.2 artikuluan ezarrita dagoenez. Hala ere, bitarte horretan, Hitzarmen Batzarrak Birpartzelatze Proiektua aurkeztu zuen, eta proiektu hori behin betiko onartu zuen Udalak 2007ko ekainaren 12an.
2. Espedientean ez dago jasota Birpartzelatze Proiektuari buruz udal arkitektoak eginiko txostenik, eta hor jasotako balioztapena ez dator bat hitzarmenean jasotakoarekin.

X.1.5 ARRAGUA 1A ETA 1B EREMUARI BURUZKO HITZARMENAK (5)

2005eko ekainaren 9an, Udalbatzak behin betiko onartu zituen Eusko Jaurlaritzarekin eta enpresa pribatu batekin izenpetu beharreko hitzarmenak (eremuko azaleraren %78,82ren jabe baitziren azken biok). Hitzarmen horien helburu zen 12., 34. eta 68. alorrei buruzko arau subsidiarioen xedapen aldaketa onartzea. Horien araupetzea etenda geratu zen 1991n. Aldaketak guztira 91.193 m²-ko eremuari eragingo lioke, hiri lurzorutzat sailkatuta; horietatik 62.102 m² dagoeneko eraikuntzaz finkatuta zeuden. Eremuan babes ofizialeko 212 etxebizitza eraikiko lirerateke, prezio itunduko 120 etxebizitza libre, 280 etxebizitza libre, eta hirugarren sektoreko erabilerako 8.000 m² (e).

Hitzarmen horietan, Udalak betebeharrak hauek hartu zituen:

- Arau subsidiarioen aldaketa bultzatzea eta 24 hilabeteko epean onartzea.
- Obra larriko lizentziaren tasari %45eko hobaria aplikatzea prezio itunduko etxebizitza libreen lursailen gainean, eta %90eko hobaria babes ofizialeko etxebizitzenei.



- Eusko Jaurlaritzari lagatzea hirigintza aprobetxamenduaren %10, babes ofizialeko etxebizitzetara dagokiena, 714 mila euroan balioztatua.

Sustatzaileak betebeharrak hauek zituen:

- Prezio itunduko etxebizitza libreak gauzatzea, Udalak zehaztutako ezaugarriak jarraituz. Prezioak babes ofizialeko etxebizitzarenaren halako 1,7 izan behar zuten gehienez ere.
- Urbanizatzeko kargatzen balioztatu zen 8.842 mila euroren kopurutik, 7.782 mila euro ordaintzea. Gainera, bere gain hartuko zituen beste gastu batzuk, eremuaren urbanizatzeko kargatzen jotzen ez zirenak. Gastu horiek gehienez 12.534 mila euro izango ziren, eta hitzarmenean «ez dagozkion kargak» izenarekin aipatu ziren.
- Udalari, kargetatik libre, mugakide den 2.629 m²-ko lur bat lagatzea.
- Udalari lagatzea hirigintza aprobetxamenduaren %10, 3.202 mila euroan balioztatua.
- Beharrezko hirigintza dokumentu guztiak idaztea.

Eusko Jaurlaritzak, berriz, bere betebeharrak hartu zuen 1.000 mila euro ordaintzea, urbanizatzeko kargetatik, eta babes ofizialeko 212 etxebizitza eraikitzea.

Hona hemen hitzarmen horietan ikusi diren huts nagusiak:

1. Sustatzailearekin izenpetutako hitzarmenean jasota zegoen Eusko Jaurlaritzak bere jabetzako lursail batzuk Udalari laga beharko zizkiola, baina betebeharrak hori ez zen ageri Eusko Jaurlaritzarekin izenpetutako hitzarmenean.
2. Sustatzaileari dagokion aprobetxamenduaren %10 lagatzea gaizki balioztatu da, behar baino 675 mila euro gutxiagoan balioztatu baita. Beste alde batetik, Udalari laga beharreko lur mugakidea ez da balioztatu.
3. «Ez dagozkion kargak» direlakoak, sustatzaileak bere gain hartuak, kontzeptutara 3.762 mila euroan baizik ez zeuden xehatuta. Zenbateko horren kontura egin beharreko beste obra batzuk deskribatuta dauden arren, zerrenda irekita utzi da, eta, beraz, zehaztu gabe.

Sustatzaile pribatuarekin izenpetutako hitzarmena 2/2006 Legeari egokitu zitzaion beste hitzarmen baten bidez, Udalbatzak 2007ko urtarrilaren 31n onartua. Hitzarmen horrek beste bi betebeharrak ezartzen zizkion sustatzaileari.

- Hitzarmen Batzarra eratzea, hilabeteko epean.
- Urbanizatzeko kargen %7ren abala entregatzea.

Birpartzelatze Proiektua behin betiko onartu zen Udalaren Tokiko Gobernu Batzarraren 2007ko maiatzaren 22ko erabakiz. Udalbatzaren erabakiaren aurka berraztertze errekurtsoak bi aurkeztu ziren; horietako bat onetsi zuen Udalbatzak, eta horrela erabaki hura ezeztatu zen, hiri lurtzat sailkatutako lurra horretarako baldintzak betetzen ez zituela eta. Beraz, hitzarmenaren gauzatzea eten egin zen.

Hitzarmenak eten zirela eta, sustatzaileak eta Hitzarmen Batzarrak hainbat errekurtso aurkeztu zituzten EAEJANean eta Administrazioarekiko auzien Donostiako epaitegietan.

2009ko ekainaren 4an, etendakoak ordeztzen zituzten beste bi hitzarmen onartu zituen Udalbatzak. Hitzarmen berri horietan jasotako xedapen aldaketak hirigintzako esku-hartzeko alor bitan zatitzen du eremua. Alorretako bata finkatu gabeko hiri alorra da, eta bestea urbanizagarria. Guztira 79.271 m² dira, eta hor eraikiko dira babes ofizialeko 212 etxebizitza, prezio tasatuko 82 etxebizitza, 160 etxebizitza libre eta hirugarren sektoreko erabilerako 6.000 m² (e) kudeatzeko, kooperazio sistema erabiliko da.

Hitzarmen horietan, Udalak betebeharrak hartu ditu:

- Arau subsidiarioak onartzea, hitzarmena behin betiko onartzen denetik hilabeteko epean.
- Egikaritzeko behar diren kudeaketa eta antolamendu tresnak onartzea, lau hilabeteko epean.
- Babes ofizialeko etxebizitzetarako dagokien Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari hobari hauek aplikatzea: 4/2003 Foru Arauko (toki zergen sistema eraberritzeko araua) 5. artikuluko a), d) eta e) idatz zatietan xedatutako hobariak.
- Eusko Jaurlaritzari dohainik lagatzea babes ofizialeko 212 etxebizitzak eraikiko diren lursailak dagokien nahitaezko lagapenaren %15.

Sustatzaileak betebeharrak hartu ditu:

- Urbanizatzeko kostuak bere gain hartzea, 14.001 mila euroraino. Kopuru horretatik 6.341 mila euro kenduko dira, dagoeneko egindakotzat jotzen baitira.
- Hirigintzako dokumentuak egiten laguntzea, 60 mila euro aurreratuta, eta arau subsidiarioak onartutakoan beste 100 mila euro emanda.
- Udalaren kontra aurkeztuta zituen errekursoei uko egitea, eta Hitzarmen Batzarra biltzeko deialdia egitea, batzar horrek aurkeztuta dituen uko egin diezazkion.
- Komunitateak plusbalioetan parte har dezan, eraikigarritasun haztatuaren %15 lagatzea. 3.802 mila euroan balioztatzen da hori, eta 1.867 mila euro esku dirutan emanez eta bi lursail eraikigarri emanez gauzatuko da: merkataritzako erabilerako 2.500 m² (e)-ko lursail bat eta bulegoetarako 1.000 m² (e)-ko lursail bat. Edo, hori ezinezkoa baldin bada, lokal eraikiak emanez: guztira, merkataritza erabilerako 2.770,8 m² (e) eta bulegoetarako 1.000 m² (e).

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen ditu betebeharrak hauek:

- Udalari 1.219 mila euroren diru laguntza ematea, Arragua Iparra berriz urbanizatzeko (auzoaren zati bat urbanizatuta dago eta 179 etxebizitza ditu eraikiak Espainiako Etxebizitza Institutuak; 2007ko arau subsidiarioetan eremuaren barruan sartuta zeuden alor finkatutzat, eta 2009ko urrian behin betiko onartutako arau subsidiarioetan jardun eremutik at utzi dira).
- Babes ofizialeko 212 etxebizitzetarako, alokatzeko gizarte etxebizitza gisa erreserbatutako dira 48; eta Udalari esleituko zaizkio 4, gizarte beharretarako.

Birpartzelatze Proiektua behin betiko onartu zen 2010eko martxoaren 9an. Urbanizatze Proiektua 2010eko ekainaren 7an onartu zuen Udalak. Eta lehiaketa publikorako deialdia egin zen ekainaren 17an; 2010eko abenduaren 31n ebatzi gabe zegoen.

Bai sustatzailearekin izenpetutako hitzarmenaren aurka, bai Eusko Jaurlaritzarekin izenpetutakoaren aurka, errekurtsioa aurkeztu zen Administrazioarekiko Auzien Donostiako 3. Epaitegian. Lan hau burutu den egunean, ez da horri buruzko epairik eman.

Hona hemen hitzarmen horretan ikusi diren huts nagusiak:

1. %15aren lagatzea egiteko eman beharreko lokalen eta lursailen balioztapenean, ikusi da balioztapena ez dela homogenea hirigintzako aprobetxamenduaren zenbatespenarekin. Eman beharreko lursailen balioztapenean ez da kontuan hartu bere eraikin motaren lurzorua ordainaraztearen balioa. Lokalen balioztapena, berriz, salmenta prezioaren arabera egin da, eta ez kostuaren arabera. Hirigintza jardunak sortzen dituen gainbalioetan komunitateak behar duen parte hartzearen zenbatespena da auzitan jarri den alderdietako bat, aurkeztu diren eta lan hau burututako egunean epaia jasotzeke duten errekurtsioetan.

Lursail oso bat ematea ezinezkoa izanik, Birpartzelatze Proiektuak adierazten duen arren hitzarmenean aipatutako lokal eraikiak emango direla, Jabetzaren Erregistroan erregistratu dira ondorioz ateratako lursailetak bitan Udalak dituen partaidetzak, bi arloetako hirigintza aprobetxamenduaren %15en baliokide direnak.

X.1.6 ITURRIOTZ AUZOKO 22.1 ALORRA KUDEATZEKO HITZARMENAK (2)

2006ko urtarrilaren 26an, Udalbatzak behin betiko onartu zuen Iturriotz auzoko 22.1 alorraren %76ren jabeekin egindako hitzarmena, bertan hirigintza gara dadin, 2004an onartutako Arau Subsidiarioen arabera. Hona hemen alor horren hirigintza ezaugarriak:

- 7.364 m²-ko azalera; azalera horretatik 4.009 m²-ko eremuak aprobetxamendua sortzen du, eta bertan dago Udalaren jabetzako 511 m²-ko eremua.
- Guztira 27 etxebizitza hartuko lituzketen 3 bloke eraikitzeak aukera, eta 3.800 m² (e)-ko lurzoru eraikigarria. Gainera, 905,5 m² (e)-ko garajeetarako azalera eta 611,5 m² (e)-ko merkataritza azalera sartu dira.
- Kudeaketa sistema: lankidetza

Hitzarmenean adierazi da Arau Subsidiarioetan ezarritako kudeaketa sistemaren ordezkopentsazio sistema ezarriko dela.

Hitzarmen horretan, Udalak honako konpromiso hauek hartu zituen:

- 300 m²-ko azalera ematea, biribildune bat eraikitzeak eta zenbait alorren arteko espaloia bukatzeak.
- Aparkalekuak egiteko sestrapeko azalera eraikia handitzeak baimena ematea.
- Urbanizatze kargetan lankidetzan aritzea, alorraren barruan dagoen 511 m²-ko lursailaren jabe izategatik.

Sustatzaileak betebeharrak izango ditu:

- 385 m²-ko azalera lagatzea, biribilgune baten egikaritzea hobeto egin dadin, eta zenbait alorren arteko espaloiak buka daitezzen.
- Alorrean hirigintza egikaritzea (bi biribilguneren eraikuntza sartu da hirigintza horretan). Udalak enkargatutako proiektuaren arabera, hirigintza horren kostua 637 mila euro litzateke.
- Udalak izapidetu beharreko Arau Subsidiarioen aldaketaren eta proiektuen kostuak bere gain hartzea.
- 60 m² (e)-ko azalera duen lokal bat ematea, zuzkidura elementu gisa.
- Udalari 291 mila euroren zenbatekoa ordaintzea, eraikitzeko lizentzia ematen den unean jabeen jabetza eskubidean sar ez daitekeen hirigintza aprobetxamenduaren %10en lagapenaren balio gisa.

Hona hemen hitzarmen horretan ikusi diren huts nagusiak:

1. Arau Subsidiarioetan ezarritakoaren arabera, sustatzaileak eman beharreko lokalak 240 m² (e)-ko azalera izan behar zuen.
2. Hitzarmenean ez da justifikatu zergatik ordeztu den lurzoruan aprobetxamendua lagatzeko obligazioa aprobetxamenduaren monetarizazioaren balioaz.

2006ko abenduaren 4an, beste hitzarmen bat behin betiko onartu zen, sustatzaileak eskatuta, aurreko hitzarmena 2/2006 Legea egokitu zedin. Beste hiru jabe ere atxiki ziren hitzarmenera, eta honako betebeharrak ere ezarri ziren:

- Hitzarmen Batzarra eratzea.
- Birpartzelazio Proiektua eta kargak eta irabaziak berdinbanatzeko proiektua egitea.
- Urbanizatzeko kargen %7ren abala ematea, hitzarmena sinatu eta gero.

Hitzarmen Batzarra 2007ko otsailaren 15ean eratu zen, eta alorrean aprobetxamendua zuten jabe guztiak sartu ziren, gero.

Hona hemen hitzarmen horretan ikusi diren huts nagusiak:

1. Hitzarmena berandu sinatu zen; ez zen Udalbatzak ezarritako 15 eguneko epean sinatu, 43 eguneko atzerapenarekin baizik.
2. Hitzarmena hasierako onarpena eman eta gero argitaratu zen, eta baina ez ziren argitaratu hitzarmenean aipatutako eranskinak. Eranskin horietan aurreko hitzarmena eta planoak jaso ziren.
3. Emandako abala arkitektoaren balioztatzean aintzat hartutako urbanizatzeko kargen arabera eman behar zena baino 75 mila euro gutxiago da.
4. Jabeen jabetza eskubidean sar ez daitekeen hirigintza aprobetxamenduaren %10en lagapenaren balioztatzea, izan behar zena baino 23 mila euro gutxiago da, lurzorua ordainaraztearen balioetik egoitza berria emateko entregatu beharreko etxebizitza baten eta saltoki baten azalerratik 200 m² (e) kendu direlako. Hori urbanizatzeko karga



gisa sartu behar da, 2/2006 Legeko 147. artikuluan xedatutakoari jarraituz. Udal arkitektoaren txostenean ez da sartu emandako gainerako lursailen balioztatzea.

5. 2008ko maiatzaren 12an, Hitzarmen Batzarrak Birpartzelazio Proiektua onartu zuen, hitzarmenean ezarritako epetik urtebete baino gehiago atzeratuta. Aipatutako proiektuan askotariko eraikuntza moten homogeneizazio koefizienteak kalkulatu dira. Kalkulu horretako salmenta eta eraikuntza prezioak erabiliz, aprobetxamenduaren %10en lagapenaren balioztatzea hitzarmenean itundutakoa baino 218 mila euro gehiago litzateke.
6. Biribilgunea jabeetako batek egin du, 2/2006 Legeak 172.2 artikuluan eskatzen dituen publikitate eta lehia printzipioak bete gabe. Lan hau egin den egunean, Udalak oraindik ez du obra jaso.

X.1.7 UGALDETXO AUZOAN EGIN BEHARREKO JARDUERAK EGITEKO HITZARMENA

2007ko urtarrilaren 31n, Udalbatzak hitzarmen bat onartu zuen, hirigintza aprobetxamendua monetarizatzeko. Hitzarmena bertan araututako alorren azaleraren %9ren jabe zen sustatzailearekin egin zen. Hitzarmenaren xedea Ugaldetxo auzoa urbanizatzea eta bertan hirigintza kudeaketa eta garapena egitea zen. Auzo horretan 650 etxebizitza eraikitzea aurreikusi zuten. Etxebizitza horietatik 255 babes ofizialekoak izan behar ziren, beste 255 libreak eta gainerako 140 etxebizitzak tasatuak. Horrez gain, merkataritzako lokaletarako 6.400 m² (e)-ko azalera ere sartu zen. Hitzarmenean, lau enpresaren lekualdaketa ere sartu zen (ikus X.1.3); enpresa horietatik hiru ez daude aipatutako eremuan.

2008ko otsailaren 18an, Udalbatzak bertan behera utzi zuen hitzarmena, eta ez da haren orde besterik sinatu.

Hona hemen hitzarmen horretan ikusi diren huts nagusiak:

1. Hitzarmenaren testuan, hirigintza eraikigarritasunaren parametroak aipatu dira - m² (e)-ak, merkataritzako lokaletan eta komunitate ekipamenduetan-, eta parametro horiek ez datoz bat hitzarmenaren eranskin gisa jaso diren hirigintza fitxekin. Beraz, hirigintza antolamenduko alor horretarako aurreikusitako irabazizko erabileren eta hornikuntzarako erabileren arteko oreka hautsi da.
2. Udalbatzak 15 eguneko epea ezarri zuen hitzarmena sina zedin, eta handik bi hilera sinatu zen.
3. Jabeen jabetza eskubidean sar ez daitekeen hirigintza aprobetxamenduaren lagapena 4.788 mila euroan zenbatetsi da. Zenbateko horretatik 3.000 mila euro Birpartzelazio Proiektuan ezarriko den eran ordainduko dira, eta, gainerakoa, arkitektoaren txostenean balioztatu ez diren zenbait hornikuntzarako lokal ematearen bidez.
4. Hitzarmena argitaratu eta gero aldaketak egin dira behin betiko sinatutako hitzarmenean (lekualdatu beharreko enpresen lursailei buruzko zehaztapenak, eta



hornikuntzarako bi lursail kendu dira), eta aldaketa horiek ez daude arrazoituta espedientean.

5. Hitzarmenean aipatutako eranskinetako bi ez dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu.
6. Hitzarmena sinatu dutenetako baten ahalordeak ez dira jaso.
7. Hitzarmenean sustatzailearen jabetzakotzat ageri den lursail baten azalera (16.174 m²) ez da behar bezala frogatu.

X.1.8 ERROTA LEGOR ZAR 33.2 ALORRA EGIKARITZEKO HITZARMENA

2007ko martxoaren 1ean, Udalbatzak behin betiko onartu zuen «Errota Legor Zar» 33.2 alorra ituntze sistemaren bidez egikaritzeko hitzarmena, jendaurrean jartzeko epea igaro eta gero. Hitzarmena alorraren azaleraren %98,5en jabeekin sinatu zen, eta alorra urbanizatzea zuen xede. Alor horretan 6.000 m² inguruko oinplanoa duen industria pabilioia eraikitzea zegoen aurreikusita araudian.

Sustatzaileak honako konpromiso hauek hartu zituen bere gain:

- Hitzarmen Batzarra eratzea, Birpartzelazio Proiektua aurkeztea eta urbanizatzeko karga guztiak bere gain hartzea.
- Irabazizkoa ez den aprobetxamenduaren %10en lagapena gauzatzea, dirutan, Udalaren alde. Balioa, aldeek adostu behar zuten.
- Urbanizatzeko kargen %7ren abala formalizatzea.

Urbanizatzeko obrak 2008ko azaroaren 11n jaso ziren.

Hona hemen hitzarmen horretan ikusi diren huts nagusiak:

1. Hitzarmen Batzarra 2007ko martxoaren 16an eratu zen, eta 2007ko azaroaren 12an inskribatu zen Hirigintzako Erakunde Laguntzaileen Gipuzkoako Erregistroan. Une horretan nortasun juridikoa hartu zuen, 3288/1978 Errege Dekretuko 26.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Hala ere, Hitzarmen Batzardeak Birpartzelazio Proiektua aurkeztu eta Udalak onartu egin zuen ekainaren 12an, baina orduan Hitzarmen Batzardeak ez zuen jarduteko gaitasun juridikorik.
2. Jabeen jabetza eskubidean sar ez daitekeen hirigintza aprobetxamenduaren %10en lagapena -513 mila euro- Birpartzelazio Proiektua onartu eta gero, 234 eguneko atzerapenarekin, ordaindu zen, eta ez ziren eskatu horri zegozkion interesak (interes horiei esker 13,6 mila euroren sarrerak lortuko ziren).
3. Ez da egin zegokion Hirigintza Jarduneko Programa, eta hori 2/2006 Legea indarrean sartu aurretik behin betiko onartutako antolamendu xehatua egin dela adieraziz justifikatu da, 3.2. xedapen iragankorrari jarraituz. Dena den, Xehetasun Azterketari hasierako onarpena baino ez zitzaion eman, 2005ean haren hasierako onarpenaren kontra alegazio bat aurkeztu eta gero gelditu baitzen, banaketa alorraren mugaketa onartzea falta zelako. Birpartzelazio Proiektuan 1996ko Arau Subsidiarioak aipatu dira, eta ez 2007ko apirileko aldaketa.

4. Ez da jaso urbanizatze obrak -155 mila euro- publikoki lizitatu direnik, kontratazio publikorako araudiaren arabera.

X.1.9 HITZARMENA, ELIZALDEKO 1 ALORREKO B JARDUN UNITATEA DELA ETA

2005eko apirilaren 28an, Udalbatzak unitate horretako lursailen jabearekin hitzarmena egitea onartu zuen.

Hitzarmenaren xedea 15 etxebizitza eta 1.058 m² (e)-ko garaie eremua eraikitzea zen, batetik, eta jabeen jabetza eskubidean sar ez daitekeen hirigintza aprobetxamenduaren eta dagozkion horniduren %10 Udalari lagatzea, bestetik. Jardun unitate horretako kudeaketa sistema konpentsazio sistema zen.

Hona hemen hitzarmen horretan ikusi diren huts nagusiak:

1. Hitzarmenean, indarrean diren Arau Subsidiarioetan jasotako eraikigarritasuna baino handiagoa jaso da, 223 m² handiagoa, hain zuzen. Erabileren eta hegalen kalkuluaren interpretazio batean oinarritu da hori, eta espedientean ez da justifikatu.
2. Hitzarmenean ez da justifikatu jabeen jabetza eskubidean sar ez daitekeen hirigintza aprobetxamenduaren lagapenaren ordez aprobetxamendua monetarizatzea egokia dela.
3. Udalak 110 mila euro -jabeen jabetza eskubidean sar ez daitekeen hirigintza aprobetxamenduaren lagapenaren ordez aprobetxamendua monetarizatzeari zegokion zenbatekoa- ordaintzeko epea atzeratzea onartu zion sustatzaileari, baina ez zizkion horri zegokion interesak eskatu. Interesen zenbatekoa 2,5 mila euro izango zen.
4. Lagapenaren balioztatzeak Udal arkitektoaren txosten bat du oinarri (txosten horrek ez du datarik). Txostenean, urbanizatze kargak kendu dira lurzorua ordainaraztearen baliotik eta, hortaz, ez da bete 3/1997 Legeak, 1997ko apirilaren 25ekoak, xedatutakoa (lege horren bitartez, erkidegoak hirigintza ekintzak sortutako gainbalioetan duen partaidetza zehazten du). Horrez gain, balioztatzean erabilitako azalerei 100 m² erabilgarriko azalera kendu zaie. Ondorioz, lagapenari zegokion balioa baino txikiagoa ezarri zaio; 95 mila euro inguru gutxiago, hain zuzen.





ALEGAZIOAK, AGURAIN, ASTIGARRAGA, BAKIO, BARRIKA, GETXO ETA OIARTZUNGO HIRIGINTZAKO HITZARMENEN TXOSTENARI BURUZ HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAK MAMITUTAKO TXOSTENAREN ONDORIOEI JARRITAKOAK. 2005-2009

AGURAINGO UDALA

Aurreko alkateak egindako alegazioak:

V.1.1 AZTERTUTAKO HITZARMENEK BATEAN DITUZTEN HUTSAK

Auditatutako hirigintzako hiru hitzarmenek ororen intereseko direla egiaztatuko duen agiri bidezko arrazonamendurik ez izateari dagokionez, esan behar da larru-zurraketaren fabrikari dagokion eremu eteneko Barne Eraberritzeko Plan Berezian dagoen hirugarren sail bati bi lursailen hirigintzako atxikimendua dela-eta, hitzarmen horren interesa, espedientean jasoa dagoen legez, urbanizazio lana faseka egiteko zailtasunean datzala.

Lur Lautada XXI, SArekin PERI-6 LITUTXIPI garatzeko kudeaketa ardurak emateko hitzarmenari dagokionez, esan behar da Lur Lautada %100ean Udalaren enpresa instrumentala dela eta honenbestez, interes publikoa justifikatzeko beharrik ez dagoela irizten zaio; eremuaren garapenak berak aldi berean egin zituen urbanizazio lanak eta industri instalakuntzen zabalkuntza.

V.1.2 EKIALDEA-1 SEKTOREAREN HIRIGINTZAKO APROBETXAMENDUAREN SALMENTARAKO HITZARMENA

Udalak 2006ko abenduaren 27ko Osoko bilkuran onetsitako hitzarmenaren zirriborroa sinatua ez egoteari dagokionez, esan behar da hori horrela dela jendaurrean azaldu zen aldian hainbat alegazio jaso eta partzialki onartu zirelako 2007ko apirilaren 3an egindako osokoaren ohiz kanpoko bilkuran; honenbestez, dagokion hitzarmena aipatutako saioan onetsi ondoren izenpetu zen.

1.- Hirigintzako aprobetxamenduaren %10eko balorazioari dagokionez, balorazioa Udal Arkitekto Teknikoak egin zuen eta HARRESI PARKEA, SArekin hitzartutako lehenengo hitzarmenean barne hartu zen; eta horri dagokio Ekialdea-1 Sektorearen Partzelazio eta normalizazio proiektua, balio hori ontzat ematen duela.

Bestalde.

a.- Ekialdea 1 sektoreak, Aguraingo hiri-plangintzako Arau Subsidiarioetan desjabetzea zuen aurreikusita jarduketa-sistema bezala. Horren arabera, behin desjabetzearen prezio zuzena ordaindu eta gero, hirigintzako aprobetxamenduaren %100 Udalaren esku geratzen da. Logikoa denez, desjabetzeari dagokion prezio zuzena finkatzerakoan hirigintza-aprobetxamenduaren %85 hartu behar da kontuan (lehenago %90) ordaintzeko orduan, gainerako %15a (lehenago %10a) Udalari baitagokio legez.

b.- Ekialdea 1 sektorearen kasuan, Udalak, desjabetzerakoan, LUR LAUTADA XXI, SA sozietatea izendatu zuen desjabetzearen onuradun eta honek, ondoren, lehiaketa publikoa



deitu zuen HARRESI PARKEA, SA sozietatea osatzeko bazkidea aukeratzeko. LUR LAUTADA XXI, SA sozietateak lehiaketa horretan zituen betebeharren artean, desjabetzearen eskubideak HARRESI PARKEA, SA sozietateari lagatzea zegoen, aukeratutako bazkideak gauzatu zituzan eskubideok. Gainera, legez zegokion %10aren ekarpena egin behar zion HARRESI PARKEA, SA sozietateari, beti ere kontuan harturik LUR LAUTADA XXI, SA sozietatea zela HARRESI PARKEA, SA sozietatearen kapitalaren %51ren jabea, bazkidea gainontzeko %49aren jabe zen bitartean, eta, beraz, bakoitzaren prestazio eta ekarpenak bakoitzaren partaidetza-ehunekoaren arabera behar zuten izan.

c.- Ondorioz, HARRESI PARKEA, SA sozietateak ez zuen Udalari inongo aprobetxamendurik lagatzeko betebeharririk, titulu batetik edo bestetik haren jabe baitzen %100ean. Logika hutsean, beraz, lagapen-betebeharririk egon ezean, ezin da dirutzeko betebeharririk egon.

d.- Guzti hori gora behera, bere garaian LUR LAUTADA XXI, SA sozietateak deitutako lehiaketaren deialdian eta esleipenean jaso zen esleipendunaren betebeharririk gisa HARRESI PARKEA, SA sozietateak Udalari ordainduko ziola aprobetxamenduaren %10ari zegokion diru-zenbatekoa, izendapen-eragin hutserako, ez baitzegoen horren legezko betebeharririk. Izan ere, esleipendunari jarritako betebeharririk hori ez zegokion legeak ezartzen duen hirigintza-araubidearen hariko hirigintza-plangintzako gainbalioetan gizartearen partaidetzari dagokion betebeharraren esparruari, baizik eta lehiaketaren hariko betebeharra zen, ituntzeko askatasunaren printzipioaren babesean sortua.

2.- Eraikigarritasuna areagotzetik eratorritako hirigintzako aprobetxamenduaren balorazioari dagokionez, zehazki eratan balorazio hori hirigintzako lizentzia eskuratu aurretik egin behar da.

V.1.4 SAUR-0 ZADORRA HEGO MENDEBALDEKO SEKTOREA KUDEATU ETA EXEKUKATZEKO HITZARMENA

1.- Gaurko datan eremuaren jabeek ez dute birpartzelazio proiektua aurkeztu; hala eta guztiz ere, hainbat bilera egin dira jabeetako bakoitzak ekarritako azalera zenbatekoa den argitzeko.

2.- Hirigintza zamen %7ko abala ez da aurkeztu, nahiz Udalak eskatua duen.

V.1.5 SAN JUANGO BARATZEAK UAU-E (D6) JARDUERA UNITATEA KUDEATU ETA EGIKARITZEKO HITZARMENA

2.- Eremuaren jabeek ez dute birpartzelazio proiektua aurkeztu; litekeena da egungo egoera ekonomikoak esparruaren garapena bertan behera utzi izana.

3.- Hirigintza zamen %7ko abala ez da aurkeztu, nahiz Udalak eskatua duen.



V.1.6 LUR LAUTADA XXI SAU-REKIN KUDEAKETA ARDURAK EMATEKO HITZARMENA, PERI-6 LITUTXIPIREN GARAPENERAKO

1.- Gai honi buruz, testuingurua azaldu beharra dago lehendabizi, bi ikuspegi kontuan hartuz:

- Alde batetik, Litutxipi izeneko gunearen kokapena eta ordura arteko gunen horren tramitazioa. Hiriaren hegoaldean dagoen esparru bat zen, hutsik zegoena eta hiriaren hegoaldeko industria-lurren eraztuna, N-1 errepide nagusiaren aurrealdean, osatzeko geratzen zen azken “uhartea” izanik.

Ildo horretatik, betidanik izan du Udalak gunen hori betetzeko asmoa, aspaldidanik kalifikatuta egon dena hirigintza-araubidean.

Horretarako, gunen hori hirigintza-sistema publikoak erabiliz garatzeko ahalegina egin zen lehenik, hala nola desjabetzea, baina lurren jabeak aurka agertu ziren, auzitara eraman ere egin zutelarik.

Egoera horren aurrean, eta aspaldi onartuta zegoen Barne Eraberritzeko Plan Berezi bat izanik, sistema aldatzeko tramitazioari ekin zitzaion, lankidetzaren sistema onartuz, eta horren babesean Birpartzelazio-proiektu egokia lantzeari. Azken hau epai-bidean errekurritu egin zen eta berretsita geratu zen, are apelazio-mailan ere.

- Eta, beste alde batetik, urbanizazio-prozesua abian jartzeko zegoen premia larria hartu behar da kontuan, garai hartan zegoen eskariari aurre egiteko, bai orduan zeuden ekoiztegi-lantegiak handitzeko, bai ekoiztegi-lantegi berriak ezartzeko. Gaur egun eta gagozkion ondorioetarako garrantzirik gabekoak diren arrazoiengatik, aipatu eremua antolatzeko eta urbanizatzeko saioek porrot egin zuten behin eta berriz eta kudeaketa-gomendioa garatzen ari zen unean enpresa berriak kokatzeko eta ekoiztegiak ugaltzeko eskaria garrantzitsua gertatzen zen eta interes handikoa Aguraingo herrian enplegua bultzatze aldera. Begi bistakoa da, gainera, enpresa-handitze eta enpresa berriak kokatze hori berehalakoan erantzun beharrekoak zirela eta, gainerago, garapen hori hirigintza-lan eta instalazio egokiekin batera egin beharra zegoela; eta hala egin zen azken batean. Beharrezkoa zen, gainera, hirigintza-lanak eta proiektuen gauzatze materiala aldi berean egitea, ez bakarrik zenbait ekonomiarengan izan zezakeen eraginagatik, kontuan hartu beharrekoa izanik ere, baizik eta aurreikusitako ekonomia-jarduera sustatzeko industria-eremua garatzeko ardura zuen sozietate publikoak inbertsio- eta ezarpen-epaei erantzun ahal izan ziezaien.

LUR LAUTADA XXI, SA sozietateri kudeaketa-gomendioa emana zegoenez, sozietate honek kontratatu zuen bai urbanizazio-proiektua, bai lanen zuzendaritza, Barne Eraberritzeko Plan Berezia idatzi zuen eta eremu horren plangintzan hasiera-hasieratik parte hartu zuen teknikariarekin. Horretaz, eta jarduketara aurrera eramateko zegoen presaren arabera, aukerarik onena zela iritzi zitzaion, lanaren zati handi bat aurreratua baitzeukan.

Kontratazio horretarako kontuan hartu beharrekoa da, gainera, LUR LAUTADA XXI, SA hirigintza-arloko Udalaren sozietate publikoak egin zuela. Kapital publikoko merkataritza-sozietate izanik, kontratazio hori egin zen garaian indarrean zegoen araubidearen arabera ez



zegoen herri-erakundeen kontratugintzari buruzko esparru subjektiboaren barruan (Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko 30/2007 Legean sartu zen lehen aldiz) eta bere jarduera aurreko kontratazio-araubidearen (2000 urteko Kontratu Legearen testu bategina) 6. Xedapen Gehigarriak aurreikusitakoak arautzen zuela eta bere jarduerak publizitate- eta lehia-printzipio orokorrek mugatzen zutela soilik. Horiek guztiak kontuan, horiengatik salbuetsi zen gagozkion kasuan haien erabilera, aurreko paragrafoetan azaldutako premia- eta komenigarritasun-arrazoiak zirela eta.



ASTIGARRAGAKO UDALA

VI.1.3 KONTZERTAZIO SISTEMAREN BITARTEZ 6. HIRIGINTZA EGIKARITZAPENEN UNITATEA (GALTZUR-MURGIERROTA) EGIKARITZEKO HITZARMENA

1. hutsunea: Hitzarmena sinatu dutenek ez dute aurkeztu urbanizazio-kargen %7aren abala, eta urbanizazio-gastuei dagokienez aurkezturiko %7 ez da nahikoa.

ALEGAZIOA: Aurkezturiko abala bat dator Birpartzelazio Proiektua baino lehen sinaturiko Hirigintza Hitzarmenean xedaturikoarekin, eta bertan zehazten da urbanizazio-kargen zenbatekoa.

VI.1.7 9. HIRIGINTZA ESKU-HARTZE AREA (ERGOBIA IBILBIDEA) EGIKARITZEKO HITZARMENA

1. hutsunea: Umako Etxea eraisteko finkaturiko epea areagotzeko aurreikuspena (12 hilabete izatetik, 24 hilabete izatera aldatuz) Hirigintza Hitzarmenaren Testu Bateginean ez txertatu izana.

ALEGAZIOA: Hain zuzen, Hirigintza Hitzarmenaren Testu Bategina ez zen egokitu 2009ko abenduaren 23an eginiko Tokiko Gobernu Batzordeak harturiko erabakira; horrela, erabaki horri jarraiki, Umako Etxea eraisteko finkaturiko epea areagotzea baimendu zen, 24 hilabete izatera aldatuz, jada finakoak diren testuak bateratzeko gehiegizko lana ekarriko bailuke arestian adierazirikoak.

Umako Etxea eraisteko gehieneko epea finkatu izana ez da hartzen Hirigintza Hitzarmenaren ezinbesteko edo egiturazko edukitzat, eta horren froga gisa, eraiste-lizentzia emateko izapidetzea Gobernu Batzordeak horri dagokionez onetsiriko aurreikuspena (beste epe bat aurreikusten zuen Gobernu Batzordeak) alde batera utzita gauzatzen ari da gaur egun.

2. hutsunea: Etxebizitza-tipologia desberdinak (Babes Ofizialeko Etxebizitzak, Hitzarturiko Preziokoak eta Etxebizitza Libreak) eraikitze prozesuan aldiberekotasuna finkatzen da Hirigintza Hitzarmenean.

ALEGAZIOA: Gaurko egunez, Hitzarturiko Prezioko etxebizitzetarako eraikina eraiki da, Etxebizitza Libreen bloke bat eraikitze-prozesuan dago, eta Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikitze lizentzia oraingoz ez da eskatu.

Babes Ofizialeko etxebizitzak eraikitze, urbanizazio-lanak egin behar dira, eta lan horien egikaritzea geroagoko faseetarako programatuta dago, betiere esparruan isolaturik eta sakabanaturik egongo lirakeen eraikinak saiheste aldera.

3. hutsunea: Sustatzaileak Kultura Etxea eta Kale Nagusiaren urbanizazioa egikaritzeko aurreikuspena zuzeneko esleipena da.

ALEGAZIOA: Kultura Etxearen egikaritzea eta Kale Nagusiaren urbanizazioa esparruko jabe gehiengodunak "hirigintza-karga gisa" bere gain harturiko betebeharrak dira, eta horretaz

gain, “areako egikaritze-unitatearen berezko urbanizazio-obra guztiak ordaintzeko eta egikaritzeko” betebeharra ere hartzen du bere gain (7.3).

Obra horien egikaritzea, egia esan, Kontzertazio Batzordearen eskumena dira, eta publizitate- eta lehiatze-printzipioak aplikatuko dira.

Horrenbestez, Udalak ez du “zuzeneko esleipenik” egingo, nolahi ere, organo kontratatzailea Kontzertazio Batzordea izango delako, eta ez Udala. Izan ere, Udalak ez du aurreikusten horretarako aurrekontu-partidarik esleitzea edo gaitzea.

Alabaina, Kultura Etxearen diseinua –horretarako Ideien Lehiaketaren Oinarrietan onetsia– hautatzea Udalaren kontratazio-esparruan dago.

VI.1.8 9. HIRIGINTZA ESKU-HARTZE AREA (ERGOBIA IBILBIDEA) KONTZERTAZIO SISTEMAREN BITARTEZ GARATZEKO HITZARMENA

1. hutsunea: 2/2006 Legearen 160.6 artikuluari jarraiki gordailututako Abala, 1.034.971 eurokoa, ez da Birpartzelazio Proiektuan zenbaturiko urbanizazio-kargen %7, guztira 21.973 mila euro.

ALEGAZIOA: Kontzertazio Hitzarmena behin betiko onetsi (2008ko abendua) eta sinatu (2009ko otsaila) zen egunetan, Birpartzelazio Proiektua ez zegoen onetsita, ez hasiera batean ezta behin betiko ere. Kontzertazio Hitzarmena onetsi eta sinatu zen egunetan, esparruko urbanizazio-kargen aurreikuspena 14.785 mila euroko zenbatekora iristen zen.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ASTIGARRAGAKO UDALETXEKO ALKATE LEHENDAKARI JAUNA

- 1º.- Kontu Epaitegiak topatutako defizientziak orokorrean edukin legalari dagozkionak dira.
- 2º.- Gobernu eraigileen aldetik hartutako akordioei dagokienez aplikatu zitekeen legezkoatasunari jarraitzen zieten, txosten teknikoek esandakoan azaltzen den bezala.
- 3º.- Irizpena eman zuten batzorde informatiboek une oro izan zuten kontratatutako pertsonalaren laguntza eskatzen zen lege aholkularitzarako, dagozkion egitarauak ondo erakusten duten bezala, ikus dadin legezkoatasun abisu ala abisu eza komenioen irizpena emateko momentuan.



BAKIOKO UDALA

VII.1.2 EGOITZAZKO SR.2-BAKEA EREMUA GARATZEKO HITZARMENA

LEHENA: txostenak ez du kontuan hartzen zeintzuk izan ziren udala hitzarmena egitera bultzatu zuten arrazoiak; izan ere, asmoa udalerraren onura bilatzea izan zen, honako helburu hauek betez:

1.- Eraikin motak handitzeko posibilitatea eskaintzea, biztanle gehiago hartzeko irtenbideak eta aukerak emanez bai diseinu aldetik bai kostu ekonomikoaren aldetik (prezioa merkeagoak), eta horrela 2005ean zegoen etxebizitza eskariari erantzuna ematea; aldi berean, eremuak bizitasuna edukitzea lortu nahi zen jarduera ekonomikoaren aldetik eta aisialdi eta gozamen eremu gisa. Aintzat hartu behar da SUR-2-Bakea eremuan eta hitzarmenaren dataren aurretik indarrean zegoen plan partzialean aurreikusitako eraikuntza dentsitatea oso txikia zela eta etxebizitza motak gehienbat bizitza bakarrekoak eta atxikiak baino ez zirela.

Gainera, antolamendu hori ez zen izan udalaren jatorrizko ideia edo burutazioa; izan ere, Bakioko arau subsidiarioen tramitazioa zela-eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Antolamendu Batzordeak lehenago ere 2001ko ekainaren 1eko txostena egin zuen eta txosten horretan honako jasotzen da hitzez hitz:

“A la vista de los análisis de cuantificación residencial efectuados, desde la variable de consumo de suelo en el contexto de un desarrollo sostenible del núcleo urbano de Bakio, se estima necesario que se incrementen las densidades de vivienda definidas para los sectores S.R.2 BAKEA, S.R.3 ERREENTERIA, S.R.4 SOLOZARRA y S.R.6 ELEXALDE, en aras a que puedan cumplir adecuadamente su función de desarrollo urbanístico y se retrase la colmatación total del suelo adecuado para la acción urbanizadora”.

Era berean, aipatu beharra dago birdentsifikazioa hitzarmenaren datan indarrean zegoen eremu horretako plan partzialean zehaztutako lursail pribatuetan egin zela; horretarako, aurreikusitako familia bakarreko eraikinak eta eraikin atxikiak eraikin kolektiboen ordeztatu ziren, baina gune publikoei inolako kalterik eragin gabe.

2.- Hitzarmenaren garapenak 4.809.999,00 euroko diru-sarrera ekarri zion udalari eta kopuru hori askoz ere handiagoa da 1.744.029,00 eurokoa baino, hau da, urbanizazio zametatik libre dagoen aprobetxamenduaren doako lagapenaren %10ean baloratutakoa baino. Gainera, kontuan hartu behar da toki babeseko 42 etxebizitza kolektibo eraikitzeke aukera ere ezarri zela.

3.- Hitzarmenaren garapenak berekin ekarri zuen Bakea eremuan udalaren alde lurzoru publiko gehiago laga izana (7.000 m² aparkalekuetarako eta berdegunerako), aldeztatik aurreikusitakoekin alderatuta.

Gauzak horrela, adierazi behar da alderdi horiek guztiak espedientean jasota daudela, eta horrek aditzera ematen du zalantzarik gabe hitzarmenaren xede bakarra (eduki osoan garatutakoa) interes publikoa lortzea izan zela.



BIGARRENA: udalbatzak hitzarmena berretsi ez duela eta, ondokoa aipatu beharra dago: lehenik, hitzarmena 2008.06.28an izenpetu zen, betiere udalbatzak 2005.06.27an onetsitako modu berean. Agirian onespren horren berri ematen da, eta, horregatik, ez zen udalbatzak berresteko premia kontuan hartu, horretarako legezko betebeharririk ez dagoelako; eta, bigarrenik, hitzarmenaren ezarpenak arau subsidiarioetan, plan partzialean eta Bakeako lurak birzatzitzeko proiektuan txertatu ziren, eta udalbatzak horiek guztiak onetsi zituen.

VII.1.3 BDA-02 JARDUNUNEA GARATZEKO HITZARMENA

LEHENA: txostenak ez du kontuan hartzen zeintzuk izan ziren udala hitzarmena egitera bultzatu zuten arrazoiak; izan ere, asmoa udalerraren onura bilatzea izan zen eta arrazoiak honako hauek:

1.- Hitzarmena onesteko egunean, jardununeari zegozkion arau subsidiarioetan, dentsitate txikiko tipologia ezarri zen, bizitza bakarreko etxebizitzaren arabera (guztira bost etxebizitza); eraikin horiek ez zeukaten erlaziorik hiri lurzoruan zegoenarekin eta ez ziren nahikoak hirigunea modu egokian eta argian osatzea lortzeko. Hitzarmenaren garapenak askotariko etxebizitza eta azalera eraikitzeak aukera jorratu zuen eta prezio merkeagoetan.

Aldarazpen hori udalean sortutako baina alde aurretik Bizkaiko Foru Aldundiak beste sektore batzuei buruz ohartarazitako sentsibilitatea kontuan hartuz gauzatu zen; izan ere, arau subsidiarioetan neurri handi batean bizitza bakarreko eta biko etxebizitzaren tipologia ezarri zen eta, horrek egoitzazko eremuak osatzea eragin eta eremuok hirigunean kokatu arren, eremuok udalerraren garapen urbanistikoan parte ez hartzeko aukera zegoen, gune isolatuak eratuko baitziren, udalerraren gizarte bizitzarekiko inolako loturarik gabe.

2.- Hitzarmenaren aurretik, jardununean, gorago aipatu den bezala, bizitza bakarreko etxeak egiteko aukera aurreikusen zen, eta ez zegoen aurreikusita udalari lurzoru publikorik lagatzea. Horren ondoren, hitzarmena garatu bitartean, jardununearen arau subsidiarioen aldarazpen batean, udalerrari 889,40 m²-ko lurzoru zati bat urbanizaturik lagatzeko betebeharra jaso zen espazio librean eta oinezkoentzako bidearen dotazioari begira; espazio libre eta bide hori errepide nagusitik itsasertzeraino doa eta horrelaxe gauzatu zen lurak birzatzitzeko proiektuaren behin betiko onespenearekin eta urbanizazioaren burutzapenearekin.

Lagapen hori -oso garrantzitsua jardununea itsasertzaren mugakidea delako eta itsasertzaren gune horretan sarbide publikorik ez zegoelako- ez dago hitzarmenean jasota, baina bai ezartzen zen baldintza gisa, udalbatzak 2011ko ekainaren 27an agiri hori onesteko hartutako erabakian.

3.- Azkenik, hitzarmenaren garapenak diru sarrerak ekarri zizkion udalari, udal titularitateko irabazizko aprobetxamenduaren ehuneko hamarraren adjudikazioagatiko kalte-ordain gisa. Diru sarrera hori gauzatu beharrean, URBEGI S.L. enpresak bere kontura egin zituen BDB jardununeako lagapen lursaila urbanizatzeko obrak, betiere lursail hori ibilgailuen aparkaleku publiko gisa erabiltzeko.

BIGARRENA: akatsen 1. puntuari dagokionez:

UE-BDA-02 jardununearen hitzarmena izenpetu zenean, ez zegoen UE.BDB urbanizatzeko obren balorazio zehatzik, horren urbanizazio proiektua eginda ez zegoelako; hori dela eta, urbanizazio kostuen goranzko estimazioa egin zen (antzeko eremuetan izandako jarduketak erreferentziatzat hartuz); geroago, kostu horiek benetakoak zirela egiaztatu ahal izan zen, urbanizazio obren azken likidazioa egin zenean, guztira lanok 720.000 euroko kostua izan baitzuten. Bere momentuan horren berri eman zitzaion Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

HIRUGARRENA: akatsen bigarren puntuari dagokionez:

Obren kontratazio administratiboa eraentzen duten printzipioen arabera, oharpen hori zuzena da. Alabaina, udalak horrela jardun zuen obrak azkar eta ahalik eta eperik laburrenean egiteko modurik onena zela pentsatuz, kontratistaren kontura, hori zentzurik zabalenean ulertuta; izan ere, horrela obrarik gehienetan burutzapenetako ustekabeak direla-eta sortu ohi diren desdoikuntzak saihesteko asmoa zegoen, desdoikuntzok obren kostua garestitzen baitute eta horrek udalari gainkarga ekonomikoa ekartzen baitio. Beraz, horrelaxe jardun zen, udal interesen alde egiteko asmoarekin.

VII.1.4 BDB JARDUNUNEA GARATZEKO HITZARMENA

LEHENA: txostenean aipatu ez arren, bidezko deritzogu hitzarmenaren bitartez lortutako interes publikoa aipatzeari, esate baterako:

Alde batetik, lurzoruaren azalera garrantzitsua lortzen zen, aldarazpenaren aurretiko arau subsidiarioetan ezarritakoa baino askoz ere handiagoa, betiere kanpoko aparkaleku eta aisialdi gune modura erabiltzeko; gainera, jardunune hori hirigunearen barruan dago, eremu pribilegiatuan, hondartzaren ondo-ondoan kokatzen baita. Halaber, udalari lagatako azalera jabetza pribatu osoaren %42 izan zen.

Beste alde batetik, hitzarmenaren aurreko arau subsidiarioek eraikuntza dentsitate txikia planteatzen zuten. Hitzarmenaren garapenaren bitartez, dentsitate horren gehikuntza proposatu zen, etxebizitza eskaintza handiagoa lortuz prezio merkeagoan, bai eta eremuaren araberrako etxebizitza tipologia egokiagoa ere.

BIGARRENA: 1. akatsari dagokionez:

Egia da lurrak birzatatze proiektuan ez zela lagapenaren balorazioa jasotzen, baina, halaber, egia da 2005eko ekainaren 13ko txosten bat dagoela, hori Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eman zitzaioela eta bertan hitzarmenaren bidez gauzatutako lagapena ekonomikoki baloratzen dela.



GETXOKO UDALA

Era horretan, txosteneko epigrafeetan oinarrituta, justifikazio ezberdinak azalduko dira, Getxoko Udalari dagokionean:

I. SARRERA

Sarreran, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko VII. Xedapen Gehigarria aipatzen da, “Hirigintzako Hitzarmenen” ingurukoa, eta lehen hiru atalak jasotzen dira. Lehen atalean, hirigintzako hitzarmenak sinatzeko aukera aipatzen da, hirugarren atalak (hirigintza-antolamendua eta hirigintza-gauzatzea) zehazten duen bi modalitatetan.

Hala ere, sarreran ez dira kontuan izan hirigintzako hitzarmena, aukera izateaz gain, legezko eskaera bihurtzen denean gertatzen dira kasuak. Horixe gertatzen da itun-sistemaren kasuan, edonola ere hitzarmena sinatzea eskatzen baitu, aipatu 2/2006 Legeko 160. artikuluko bigarren atalean adierazten den moduan.

“Itun-sistemaren bidezko jarduerak hitzarmena sinatzea eskatzen du, eta, kasu horretan, lurzorua jabetzaren %50 baino gehiagok, gutxienez, ondorengo konpromisoak hartuko ditu...”.

Hain zuzen ere, legezko eskaera hori betetze aldera, fiskalizazioaren helburu diren hitzarmen batzuk sinatu dira: “Iturribarri-II” 24.2 Egikaritze Unitatearen ingurukoa eta “Sarrikobaso” 31.1 Egikaritze Unitateari buruzkoa.

IV. ONDORIO OROKORRAK

LURZORUAREN UDAL ONDAREA: Udal Kontuhartzaitzak honako azalpenak eman ditu: “Gure kontabilitateko proiektu-moduluaren bitartez ikuskatu eta egiaztatu egiten ditugu bai aurrekontuko zuzkidurak, Udalaren Lurzoru-Ondarearen aldetik 114. artikulua esanetan egiten direnak, eta bai Udalari aintzatetsiak zaizkion eskubideak, lurzoruen nahitaezko lagapenaren monetarizatzea lurjabeek egiten dutela, horretarako erabakiak hartzen direnetan. Holako informazioa Ondare sailaren eskura jarrita dago Udalaren Lurzoru-Ondarea ustiatzeko errejistroan ondasunekin batean sar ditezten”.

AZTERTUTAKO HITZARMENEI BURUZKO ONDORIO OROKORRAK:

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea indarrean sartu ondoren onartutako hitzarmenen testua argitaratu da:¹

¹ 2/2006 Legearen XG 7.aren 2. eta 8. atalek aipagai duten argitaratzeak hitzarmen osoarena behar du izan eta behin-betiko onspenaren aurrekoa, eta, jakina, hitzarmena izenpetu aurrekoa; izan ere, argitaratzeak alegazio izapideari emango dio bide gutxienez 20 egunetan; izapide honek indarra galtzen du konpromisoak irmoak baldin badira eta alegazio hauetan aurkezten diren argitaratzeak hitzarmena behin-betiko onetsi eta are izenpetu ondokoak badira. Honenbestez, ez-betetzeari eusten diogu.



